




olatukoop.eus


Ekonomia eraldatzaileak


Ekonomia eta lurraldeak
eraldatzeko proposamen bat



Ekonomia
eta lurralde
eraldatzaileen
erizoma

OLATUKOOP





Ekonomia eraldatzaileak

Ekonomia eta lurraldeak
eraldatzeko proposamen bat



OLATUKOOP

Argitalpen hau formatu digitalean eskuragarri hemen:



olatukoop.eus/argitalpenak

2024ko maiatza

Egileak : Oscar García Jurado (Talaio kooperatiboa) eta Olatukoopetako hainbat kide.

ISBN : 978-84-09-61452-3

Lege Gordailua: D 00447-2024

Diseinua eta maketazioa: TaPuntu kooperatiboa.

Inprimategia: Antza, S.A.L.



P2P lizentzia: https://endefensadelsl.org/ppl_deed_es.html

Aitortu: Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik. **Partekatutak**: Materiala nahastan, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak. **Ez-kapitalista**: Lan honen merkataritza-ustiapena soilik kooperatibek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta kolektiboek, autogestionatutako langileen erakundeek eta esplotazio-harremanik ez dutenek egin dezakete. Lizentzia honek ematen dituen eskubideez baliatuz lortzen diren soberakin edo gainbalio guztiak langileen artean banatu beharko dira.

Finantzatzailea



...Ez dago gizarte deitzen dugun hori:

Banakako gizonak eta emakumeak
daude,

eta familiak ere badaude.

Margaret Thatcher (There is no alternative – TINA)

Pobreak daude
aberatsak daudelako

Miren Etxezarreta

Nire poesia oso merkea da
herriaren ahotik
hartu nuen debalde,
eta debalde ematen diot
herriaren belarriari.

Nik ere badut nire egia
eta bankero jaunarenak
bezainbat edo baino gehiago
balio du.

Munduko gauza guztiak gastatzen dira:
gastatzen da osasuna, maitasuna, desoea...
bizioa, gutizia, bizia, eta erresen gastatzen da
munduko gauzarik iraunkorrena, gogorrena, dirua.

Inork badio: nire etxean eztago bakerik
bila beza bakea hauzoko etxean
edo munduko basterrik azkenean
baina etxean bakea balu,
eztezala gerraik inun bila
bakea eta etxea galdoko baitu
munduko basterretan.

Gabriel Aresti

Oparotasuna denontzat!

Saiakera honek Olatukoopek bere 10 urteko ibilbidean ondutako esperientzien ondorioz, 2014an definitutako Ekonomia Sozial Eraldatzailearen teoria eta ereduaren baitan egondako eboluzioa eta proposamen berriak jasotzen ditu, aurrera begira, Bizitzarako Ekonomia bat eraikitzeko ongarrri izan dadin.

Asko dira ibilbide honetan guztian izan ditugun bidelagunak, hasi Olatukoopeko kide diren kooperatiba/erakunde guztiak eta baita urte hauetan guztietan gurekin lankidetzan aritu diren proiektuak: LANKI ikertegia, GEZKI institutua, Udalbiltza, Kataluniako burkideak (Coop57ko, Ciutat Invisibleko, Coopoliseko, Ateneu Catalunya Centraleko, Ateneu Ponent Cooperako hainbat eta hainbat kide) eta herrigintzan lanean dabiltzan beste hamarnaka pertsona eta eragile.

Egindako bidea oparoa bezain gorabeheratsua izan da. Txikitasunetik, ilusioz hasitako bidean, oztupoak bezainbeste topatu ditugu kolektiboaren babesa, zaintza, elkartasuna eta aurrera egiten jarraitzeko gogoia.


Eztabaida eta gatazkan hazten gara, horregatik testu honekin bide horretan ekarpen bat egin nahi dugu. Proposamena horixe da, proposamen bat, aniztasunean batasuna lor daitekeenaren

ideiarekin josia, hori bai. Bizitzea tokatzen zaigun garai honetan, aniztasunean batasuna bilatzeari, borrorak lotzeari uko egiten diotenen kontra.

Beste espiritu bat ere jasotzen du proposamenak: ekonomiak ez badu denona dena, komuna dena zabaltzen, ez da eraldatzailea. Jaietan bezala, jaiak denontzat ez badira, ez direlako jaiak. Sistema honen barruan jaio eta biziraun behar badugu ere, bertatik kanpo bizi eta berau gainditzeko bidean gaudela ez zaigu ahazten.

Hirugarren ideia bat barneratzen du testuak. Pentsamendu positibo hutsala, berez, negatiboa izan daiteke gaurko testuinguruan, baina zerumuga positiborik gabe, edo gutxienez heldulekurik gabe, ez dago etorkizunik. Guk helduleku horietako batzuk proposatzera gatoz, baina ez du balio desiratzeak, desira ezinbestekoa bada ere, alternatibak imajinatu, egin eta gorpuztu egin behar dira erantzukizunez.

Beraz, espero dugu liburuxka honekin Ekonomia herriratu eta geure beharretik gure bizitzaren burujabetza lortzeko inspirazioa lortzea. Beste batzuekin batera, ekonomia eraldatzaile, feminista, antiarrazista eta burujabea gauzatzeko prest gaude. Ekonomia herrien behar eta desiratik eraiki ezin dela aurkezten digutenei, herritik eta herriarentzat sortutako ekonomia egiteko gai garena eta egingo dugula esan nahi diegu. Elkarrekin ekoiztea, zaintzea eta ondo pasatzea da bizitza bizigarriak eta burujabeak lortzeko modu bakarra.



PITZADURAK IREKITZEKO MAPA BAT

Izena duen guztia omen da. Logika hori oso barneratuta dauka liburuxka honek, hizkuntza baita pentsamenduaren lehen muga eta, beraz, posible denaren perimetroa markatzen duena. Hasi behar den lekutik hasten da, alegia, kontzeptuak aletzetik, ideia horiek haien espresio sinplenera (baina ez sinplistenera) ekarriz. Hortaz, ekonomiari beldurra galtzeko liburuxka bat da. Are gehiago, ekonomiaren zirrikituak ulertzearekin eta ustez korapilatsuak diren kontzeptuei beldurra galtzearekin batera, erakutsiko digu gauden sistema honetan geratzea dela beldurgarriena.

Ekonomia Sozial Eraldatzailean aritu izan garenek hainbatetan jaso dugun galdera izan da “eta hau idatzita duzue?” eta ez dugu idatzizko korpus bat izan, “bai, tori, hemen” esateko. Euskal Herriko eta nazioarteko iturri askotatik edan arren, ahots propio batetik eraikitako ariketa bat da. Okupatuegi egon da mugimendu hau egiten, idazteko. Horrek ez du esan nahi, ordea pentsamendurik sortu eta elikatu ez denik. Ez

da zegoen eredutik ihesaldi zorua izan. Uste, pentsatu, sentitu eta kontrastatu den horretatik eraikitze, errebisatze, eztabaidatze eta moldatze lan etengabea izan da; ekintzatik eraldatzea. Uzta horren guztiaren sintesi bat jasotzen da orrialde hauetan.

Liburu hau nabigazio mapa bat ere bada, abiapuntu eta portu ezberdinetatik abiatzen diren irakurleentzat. Berdin balio dezake ekonomia ulertzen saiatzen hasi nahi duten norbanakoentzat, haien inguruan gertatzen ari denari izena jarri nahi diotenentzat edo proiektu ekonomiko edo komunitarioetan lanean ari den jendearentzat. *Maremagnum* aldakor horretan dir-dira egiten duten diskurtso efimeroetan kokatu nahi dutenentzako gida baliagarria da, era berean. Izena jartzen die zurrunbiloei, alde batetik zein bestetik putz egiten duten haizeei eta kantari ari zaizkigun sirenei. Egunero agertzen eta sortzen diren ekintzailatza, garapen edo eredu ekonomikoen proposamenak zein ardatz kartografikotan kokatu eta aztertzeko irizpideak ematen dizkigun tresna bat izan daiteke, edota gaien aritua izan arren, oinarri sendo batzuen sintesi argi batera itzuli nahi dutenentzat erreferentzia bat.

Hala ere, ez da ezagutza edo kontzeptugintza soila liburu honek bilatzen duena. Birjabetze kolektiborako tresna izan nahi du, hizkuntzatik eta kontzeptuetatik hasita, bizitza bizigarriak osatzen dituzten esparru guztietaraino. Beharrak eta erronkak modu kolektiboan abordatzeko bide-orri bat eskaintzen digu. Nabigaziorako koordinatu batzuk topatuko


ditugu bertan, marearen kontra eraikitako portu batzuk emango dizkigu eta bodegak ideiaz eta erereduz beteko dizkigu, bidaiatzen jarraitzeko.

Baina adi, nabigazio mapa bat da, ez altxorren mapa bat. Errezeta magiko bila ari denak bidea eta bere hauts eta zipritzinak ekidin nahi ditu. Ziur topatu litezkeela zuloak, arazoak, mugak; ezinezkoa baita sortzez garbia den hutsune batetik abiatzea. Hemen topatuko dituzun proiektuak eta praktikak sistema kapitalista neoliberal, heteropatriarkal, ekozida eta beste hainbat abizendun testuinguru batean eraikiak dira. Hori puskatu eta eraldatzeko bokazioz, bai, baina joko zelai minatuan. Kapitalismoak bostehun urte darama mutetzen, eboluzionatzen eta bizirauteko testuinguru berrietara egokitzen. Horixe sostengatzeko eraikia dago sistema legal eta ekonomiko osoa, baita sistema elikatuko duten bizitzak eraikitzeko balore-sistema eta eredu kultural oso bat ere.

Oinordekotza horrekin apurtzeko proposatzen duen nabigazio mapak norbera busti eta zipritintzea eskatzen du. Zerbaiten parte izatea, autoantolatzea eta bidaiak taldean planifikatu eta abiatzea. Beraz, orriotan jasotzen den hau auto-eraketa komunitarioaren parte izateko itsasargi bat ere bada. Bizitzaren dimentsio kolektiboak garatzeko, komunitatean parte aktibo izateko esparru berriak zabaltzeko, bizitzaren dimentsio kolektibizagarriak irekitzeko... datorkigun olatu indibidualizatzaileari aurre egiteko estalpe bat izan daiteke.

Aurrean dugun paretaren handitasuna eta sendotasunaren kontzientzia osoa hartuta ere, zenbat eta pitzadura gehiago ireki, zenbat eta espazio gehiago sortu gure komunitateetan, jarduera ekonomikoetan eta bizitza bizitzeko moduetan, orduan eta hurbilago izango dugu horma horren eraistea. Are gehiago, eraiste horren ostean eraiki nahi dugun bizitzarako tresnen eta bideen inguruko eskarmentua izango dugu.

Era berean, bizitzeko, herria eta komunitatea eraikitzeko, naziogintzarako eta munduan egoteko modu bat proposatzen du, autonomia komunitarioa aldarrikatzen du burujabetza desberdinak antolatuz. Euskal Herriaren eraikuntza prozesuari ekarpen bat eginenez, mundu hobe baterako bidean jartzen gaitu.



Oinarri komun bat ezarri, mapan koordinatu batzuk markatu eta bideetara ateratako jendeak josi du irakurtzera zoazena, irakurle. Liburu hau ez da ekonomia ikuskera baten oinarri fundazionala beraz. Ez da intentzio aitorten bat edo promesa bat. Ariketa eraldatzaile hau noraino iritsi den eta egindako bidean ikasitakoa kontatzera dator. Oinarri teori-

koen kasuan, erroak sendotzeko hizkuntza komuna eskaintzen digu. Praktiken kasuan, berriz, ibilbideak, moldeak eta formula posibleak agertuko zaizkigu. Proiektu bakoitza pitzadura bat da eta pitzadura bakoitza hazi bat.

*Arianne Kareaga Irazabalbeitia
Amaia Oleaga Agesta*

Aurkibidea

Lehen atala.

Ekonomia-nozio oinarrikoak	19
1. Ekonomia(k)	19
• Ekonomia eta ekonomia kapitalista	19
• Ekonomia eraldatzaileak: iturri batzuk.....	21
2. Elementu eta ezaugarri ekonomiko bereizgarriak	25
• Helburuak, eragileak, erakundeak.....	25
• Estatua.....	27
• Logikak eta nagusitasuna	28
3. Oinarriko elementu ekonomikoak berriz aztertzea	30
• Lana, besteren konturako enplegua baino askoz gehiago.....	30
• Biztanleria “aktiboaz”, “okupatuaz” eta “langabeaz”	32
• Natura eragile ekonomiko: pribatizaziotik komunera	33
• Diruaren berraztertze soziala	34

Bigarren atala.

Ekonomia Soziala(k)	37
1. Definizioak eta tipologiak	37
• Sarrera	37
• Ekonomia Sozialak.....	38
• Ekonomia Sozial eta Solidarioak	40
• Beste ekonomia batzuk.....	41
2. Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE)	43
• Ideia orokorrak	43
• Beste lan bat, beste jabetza bat, beste balio bat.....	46

• Ekonomia sozial eraldatzaileko proiektu baten helburuak eta irizpideak.....	48
• Agertoki kooperatibo eraldatzailea sustatzen duten beste balio batzuetarako iturriak.....	56

3. Prozesu ekonomikoaren eraldaketa	59
• Komuna ekoizpen-prozesuan	59
• Merkatuaren eraldaketa eta interkooperazioa.....	61
• Beste kontsumo bat eta beste banaketa bat.....	63
• Finantzak eta finantza-bitartekaritza etiko eta solidarioa.....	65

Hirugarren atala.

Lurralde-garapena(k)	69
1. Lurralde-neoliberalismoa	69
• Benetan existitzen den neoliberalismoa.....	69
• Lurralde-garapen neoliberala.....	71
2. Lurralde-garapen eraldatzailea	73
• Oinarriko ideiak.....	73
• Burujabetzak eta demokrazia.....	75
• Udalgintza eraldatzailea	78
3. Ekosistema sozioekonomiko eraldatzaileak Euskal Herrian	81
• Subjektu eraldatzaileak eta lurralde-eragileak	81
• Esku-hartze ereduak	82

Hitzostea	87-89
------------------------	-------

Bibliografia	90-92
---------------------------	-------

Ekonomia-nozio oinarritzkoak

1. Ekonomia(k)

Ekonomia eta ekonomia kapitalista

Eskuliburuetan aurki dezakegun **definizio konbentzionalak** dio erabilera alternatiboak izan ditzaketen baliabide urriak kudeatzen dituen zientzia dela **ekonomia**. Zertarako? Pertsonen beharrak asetzeko edo gizarte bateko kideen ongizate materiala bilatzeko¹. Gaur egun, ordea, “benetan existitzen den ekonomiak” ez du helburu hori. Ekonomia nahasten da ekonomia kapitalistarekin, eta honen helburua kapitala metatzea eta enpresa-irabaziak sortzea da.

Gaur egungo **ekonomia kapitalista**, gure gizartean benetan dagoen ekonomia, “**krematistika**” aristotelikoa besterik ez da, “batez ere monetaren inguruan mugitzen dena eta bere funtzioa diru kopuru bat nondik lor daitekeen behatzeko gaitasuna duena”². Edo Polanyiren “**ekonomia formala**”, zeinak ekonomia murrizten baitu merkatu lehiakorretan egin

1 Cabrera, A., Lluch, E. eta Pedrajas, M. *Economía*, Batxilergo 1. mailako liburua. Ed. SM. 2002.

2 Aristóteles. *Política*, Colección Clásicos de Grecia y Roma, Madrid, Alianza Editorial (K.a. IV. mendeko jatorrizko testua). 2007. I Liburua, VIII. atala; 59-62.

beharreko banakako hautaketetara, enpresa-irabaziak eta kontsumoa maximizatzeko gidatuta³.

Ekonomia eta ekonomia kapitalista ez dira gauza bera.

Bigarrena lehenengoaren mota bat da, besteak beste, sozietate bat ekonomikoki antolatzeko modu bat. Horrelako ekonomian, pertsona batek bizi ahal izateko, enpresaburu batek haren lan-indarra eskatu behar du; lurralde batek inbertsioak jaso ditzan, enpresek ulertu behar dute kapitala metatu ahal izateko behar den guztia jasoko dutela; gauzen balioa ez dute pertsonen beharrek markatzen, baizik eta pertsonen erosahalmenak; Natura, ia gauza guztiak bezala, norbaiten jabetza pribatu eta eskusiboko merkantzia bihurtzen da. Horrela, ekonomia kapitalistak lortu du bere agente hegemonikoak, kapitalak, existitzeko eskubidea emateko gaitasuna izatea. Hartara, gainerako eragileak, bereziki giza bizitza eta bizitza naturala, haren helburuen mende geratzen dira; kapitalaren burujabetzak eta autonomiak pertsonen, kolektiboen edo beste eragile batzuen emantzipazioa, burujabetza eta autonomia eragozten dute.

Ekonomia eraldatzaileak: iturri batzuk

Hasiera batean, **ekonomia eraldatzaileak** dira ekonomia kritikoa, feminista, ekologikoa eta dekolonialak funtsezko iturri dituzten praktika eta eragileak. Iturri horien konbergentziak balio du giza bizitza eta planetakoa erdigunean jartzeko, eta aldaketa sozioekonomiko emantzipatzaileen logikak bultzatzen dituzte.

Ekonomia soziala kontzeptua sortzen da ekonomiaren helburua berriz ere pertsonen beharrak asetzea izan dadin, eta bizitzak kapitalaren interesak mendera ditzan. Soziala deritzonean ekonomiak pertsonen premiak asetzea lehenesten du, lukuruaren eta irabazien gainetik. Ekonomia hori Aristotelesek **“oikonomia”** edo etxea administratzeko arau gisa ulertzen zituenetara hurbiltzen da; alegia, bizitzarako ezinbestekoak eta komunitatearentzat baliagarri diren gauzak lortzen saiatzen dena⁴. Edo Karl Polanyiarentzat **“benetako ekonomia”** zenera: jendeak eguneroko zereginetan sortzen dituen prozesu sozial eta lotura guztiak giza beharrei erantzutera bideratuak dira, bizitzarako behar dena hornitzeko⁵.

Ilido beretik, **ekonomia feministak** bizitza eta hori modu iraunkorrean ahalbidetzen duten prozesu guztiak ere antolaketa ekonomikoaren erdigunean kokatzea proposatzen du. Bestalde, **ekofeminismoak**⁶ ekonomia feminista ekonomia ekologikoarekin eta pentsamendu dekolonialarekin lotzen

3 Polanyi, K. *El sustento del hombre*. Barcelona, Mondadori (1977, *The Livelihood on Man*, new York Academic Press).

4 Aristóteles. *Idem*.

5 Polanyi. *Idem*.

6 Mies, M. eta Siva, V. *Ecofeminismo*. Ed. Icaria, 2016.

ditu. Ikuspegi horretatik, mendebaldeko eredu ekonomiko eta kulturala eratu zen eta mantentzen da emakumeen, “atzerriko” herrien eta haien lurren kolonizazioaren eta naturaren bidez. Eta menderakuntza orotarikoak logika komun batzuen ondorio dira, hau da, naturatik at bizitzeko ilusioa, botere patriarkala eta koloniala eta bizitza bera, metaketaren eskakizunaren mende jartzen dira.

Azkenik, **feminismo materialistak**⁷ gaur egun mundua gobernatzen duen esplotazio eta merkantilizazio sexuatu eta arrazializatuan jartzen du fokua. Alde batetik, aro monoteistako europar patriarkatua, lehenengo “kristaia” eta gero “liberala” deiturikoa, garapen kapitalista eta kolonialaren oinarria da. Eta, bestetik, kapitalismo koloniala erabat garatzen da gizaki-ekoizleen, ekoizten dituzten gorputzen eta haien produkzio-bideen arteko haustura gertatzen denean, baita ekoiztutakoaren gaineko alienazioa gertatzen denean ere. Horrenbestez, Europako pentsamendu eta gizarte patriarkaetik sortzen da kapitalismoaren eta kolonialismoaren sistema ekozida, non pribatizatzen, alienatzen eta desjabetzen den lehen gauza emakumeen gorputza baita, emakumeak eurak eta beren produktua (humanoa, lan-indarra), baina desjabetzen dira baita sortzen duten balioa eta irabaziak ere. Emakumeek beren gorputzarekin ekoizten dutena bigarren mailakoa edo erreproduktibotzat jotzen da, eta naturalizatu egiten dute. Aldiz, gizonek beren gorputzekin egiten dutena kulturizatu, politizatu egiten dute, eta lana eta produkzioa

7 Goikoetxea, J. *Idealism and biologism in Social Reproduction Theory: a materialist critique*. Capital and Class 1-20, 2024.

deitzen diote. Beraz, modu totalitarioan ezartzen da ekoizpen mota bakarra gizonezkoen ekoizpena dela.

Ekonomia feministak, beraz, ekonomiaren ikuspegi oso argigarria ematen du. Gainera, korrante honek zehazten du “bizitzari eusten dioten katebegi” batzuek osatzen dutela ekonomia⁸.

Oinarrizko mailan **natura** dago, eta horren mende dago eta egon da beti bizitza. Bigarreanean, **zaintzaren** eremua dago, hau da, pertsonak hazten, sozializatzen, nortasuna hartzen... duten lekua, batez ere emakumeek artatutako ondasun, zerbitzu eta zaintza emozionalen bidez. Zeregin horiek devaluatu eta ikusezin bihurtu ditu ekonomia kapitalistak, hirugarren katebegiari gertatu zaion bezala, **komunitateenari**.

Katearen laugarren eta bosgarren mailan Estatuak eta produkzio kapitalistaren espazioa agertzen dira. Ekonomia kapitalistak **Estatuaren** existentzia behar du; izan ere, merkataritza-trukea ezartzen eta betetzera behartzen duten arau, lege edo erregulaziorik gabe, nekez gara liteke.

Azkenik, **produkzio kapitalistaren** edo merkatu kapitalistaren ekoizpenaren espazioa dago, enpresek merkaturako ekoiztutako ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena hartzen dituen (edo sektore publikoak eskainitakoak, haien helburua merkatua baita), eta bere helburu bakarra ahalik eta etekin handiena lortzea da.

8 Carrasco, C. *La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción*. Economía, 2007, Nº 91.

Hirugarrenik, oinarrizko **faktore** sozioekonomikoak, hala nola lana, balioa eta jabetza ulertzeko moduak baldintzatzen du bizi garen ekonomia. Horrela, ekonomia kapitalistak mendeko soldatapeko lanean, truke-balioan eta jabetza pribatuan du oinarria. Aldiz, ekonomia eraldatzaileek lan-kontsiderazioa zabaltzeko alternatibak bilatzen dituzte, erabilera-balioa nabarmentzeko —truke-balioaren gainean—¹⁰ eta jabetza pribatutik urrun dauden jabetza- eta erabilera-formak aztertzeko.

Helburuak		Ekonomia kapitalista	Ekonomia eraldatzaileak
Eragile ekonomikoak	Pertsonak	Baliabidea / giza kapitala	Lanen berraztertze soziala
	Natura	Kapital naturala/BN (<i>Baliabide Naturalak</i>)	Komunak
	Dirua	Kapital finantzarioa	Finantza etikoak / moneta soziala
Faktore ekonomikoak	Lana	Enplegua	Lanak
	Balioa	Trukea/eskaera kaudimenduna	Erabilera / eskaera errealearena
	Jabetza	Pribatua	Publikoa / komunitarioa

1. taula. **Oinarrizko elementu sozioekonomikoak.**
Iturria: Oscar García Jurado (*Talaios Kooperatiba*)

10 “Erabilera-balioa” definitzen dugu ondasun edo zerbitzu batek premia bat asetzeko duen gaitasun gisa. “Truke-balioa”, berriz, ondasun edo zerbitzu batengatik ordaindu beharreko prezioa da. Eta, Machadok esan zuen bezala, “ergelarena da balioa prezioarekin nahastea”.

Estatua

Estatu kapitalista funtsezko euskarria da ekonomia kapitalistarentzat. Hala ere, estatu-jarduera ekonomikoak hainbat ikusmolde ditu lanari, balioari eta jabetzari buruz. Hau da, Estatuko produkzio-jarduera jabetza publikoan oinarritzen da, ez pribatuan, eta mendeko lanak beste erregulazio batzuk ditu, besteren konturako lan pribatu enpresarialaz bestelakoak, eta, bereziki, balioaren ikusmolde bat du erabilera-balioa truke-balioaren aurretik jartzen duena. Esan nahi baita, osasuna edo hezkuntza bezalako sektore publiko garrantzitsuak pertsona guztien benetako beharretan oinarritzen dira, ordaintzeko gaitasuna edozein dela ere, eta, beraz, prezioa ez da zerbitzuak eskuratzeko oztopo.

Estatu kapitalistak nagusiki bi **funtzioren** bidez egiten dio mesede klase sozial gobernatzailerari: alde batetik, irabaziak eta kapital-metaketak erraztuz, eta bestetik, biztanleriak ekonomia kapitalista onar dezan, dagoen antolaketa ekonomikoa legitimatuz. Estatu kapitalistek nolabaiteko izaera kontraesankorra dute: lehentasunez kapitalari laguntzeko tresnak dira, baina,aldi berean, populazioa pozik utzi behar dute, sistema arazorik gabe ugalduko bada. Estatuaren jardun ekonomiko guztia bi funtzio edo helburu horien arteko tentsioa orekatuta mantentzean datza: metaketa eta legitimazioa. Kapitalismo neoliberalaren garaian, eta bere plan-teamenduen erretorikarekin kontraesanean, Estatuak ez du bere garrantzia murriztu, eta ez dio bizitza ekonomiko eta sozialean eragiteari utzi; aitzitik, berregituratu egin da beste

garai batzuetan baino argiago jarduteko kapitalaren eta botere ekonomiko indartsuenen interesen alde¹¹.

Ekonomia eraldatzaileak ulertzeko eta proposatzeko orduan, egokia iruditzen zaigu esparru bat ezartzea, non ulertuko baita Estatuak, estatu-boterea, errepresiboa zein produktiboa dela¹². Ekonomia eraldatzaileek Estatuaren —edo beste edozein gizarte-antolamendu motaren— funtzioak eta helburuak birdefinitzea eragin behar dute, hala moduz publikoa, estatukoa edo komunitarioa den orok herritar guztiak jar ditzan interesgunean, duten dirua dutela; erdigunean bizitza jartzeko, kapital-metaketa alde batera utzita.

Logikak eta nagusitasuna

Ekonomia kapitalistak truke- edo diru-balioaren logikapean funtzionatzen du —dirua da gauza guztien neurri—, eta kapitala, aberastasuna eta boterea **metatzen** ditu. Alegia, lukuruaren logika da: dirua diru gehiago bihurtzea, eta horrek, aldi berean, etengabeko hedapena eskatzen du. Funtzionatzeko modu horrek kapital-metaketa eta bizitzaren iraunkortasunaren¹³ arteko gatazka dakar.

Ekonomia kapitalistak berezkoa duen esplotazio eta merkantilizazio sexuatu eta arrazializatua **multidimentsionalki** egituratutako menderakuntzan oinarritzen da. Logika horren

11 Etxezarreta, M. *¿Para qué sirve realmente la economía?*. Paidós, 2015.

12 Goikoetxea, J. eta Noguera, A. *Ibid.*

13 Soler Montiel, M., Delgado Cabeza, M, Rearticular la economía desde los territorios: *hacia una economía de los vínculos para el cuidado de la vida*. Jorge Riechmann, Alberto Matarán Ruiz eta Oscar Carpintero Redondo (koor.), *Para evitar la barbarie. Trayectorias de transición ecosocial y de colapso*. Gradadako Unbertsitatea. 2018.

euskarri dira mendeko lana, heteropatriarkatua, naturaren ustiapena eta kolonialismoaren ezaugarri den zereginen lurralde-banaketa.

Heteropatriarkatua sendotzeak eta goratzeak emakumea menderatzeko eta esplotatzeko modu bat dakar, eta hari agintzen zaizkio sistemaren funtzionamendurako ezinbestekoak diren zaintza materialak, emozionalak edo afektiboak, merkataritza-esparrutik kanpo.

Bere aldetik, **zereginen lurralde-banaketak** aukera ematen du material eta energia erauzketak eta hondakin isurtzeak egiten diren lurraldeak (periferia) menderatu eta ustia ditzaten beste batzuek (zentroa), zeinak erakartzen baitituzte biztanleria, kapitalak eta baliabideak, ekonomia kapitalista hedatzeko funtsezkoak diren aberastasun- eta botere-kontzentrazioko prozesuak sortuz.

Truke- edo diru-balioaren eta metaketaren logikaren aurrean, ekonomiek eraldatzeko eta emantzipatzeko gaitasun handiagoa izango dute, bizitza hobetzeko eta aberasteko helburuarekin erabilera-balioa, **banaketa** eta ekitatea sustatzen dituzten heinean. Hala ere, gainbalioaren ekoizpen kapitalista ez da arazo bakarra, hau da, kontraesana ez da soilik lanaren eta kapitalaren artekoa, baizik eta bizitzaren eta esplotazioaren artekoa. Bizitzeko produkzio-bideak sozializatzea premiazko baldintza da, baina ez da nahikoa eraldaketarako. Ez dago kausa bakar bat menderatze mota orotarako, eta menderatzea ez da leku bakar batean gertatzen, baizik eta gizartean, elkarri lotuta dauden baina murrizgarriak¹⁴ ez diren hainbat dimentsiotan gertatzen da.

14 Goikoetxea, J. eta Noguera, A. *Ibid.*

3. Oinarrizko elementu ekonomikoak berriz aztertzea

Lana, besteren konturako enplegua baino askoz gehiago

Sistema ekonomiko kapitalistaren ezartzea, non besteren konturako soldatapeko enplegua edo lana eginkizun nagusi bihurtzen den, ez zen ez berehalakoa ez baketsua izan. Jen-deak ez zuen arazorik gabe onartu eskulan bihurtzeak ekarri zien diziplina, kontrola edo mendekotasuna. Milaka pertsona erail zituzten Europako herrialdeetan eta kolonietan, eta emakume asko bortxatu eta erail zituzten “**sorgin-ehizan**”, mendeko lanaren diziplina ezartzeko¹⁵.

Ekonomia kapitalistak lanaren kontzeptua enplegura edo besteren konturako soldatapeko lanera **murriztu zuen**; horrela, lan “produktibo” mota bakarra dago, zuzenean kapitala metatzeko balio duen hura. Ekonomia kapitalistarentzat oso garrantzitsua izan zen **lana salgai bihurtzea eta lan-merkatua eratzea** hala moduz, zeinetan ekoizpena eta banaketa antolatzen diren lan-indarraren eta soldataren arteko truke-harreman gisa. Prozesu horretan, pribatizatu, alienatu eta desjabetu egiten da emakumeen gorputza, emakumeena berena eta haien produktuarena (humanoa,

lan-indarra), bai eta sortzen dituzten balio eta irabaziena ere. Horrela, ekoizpen maskulinoa ezartzen da ekoizpen mota bakar gisa. Emakumeek ekoizten dituztenak, zer eta bizitzaren sostengatzen duten jarduerak, bigarren mailakotzat edo “erreproduktibotzat” hartzen dira.

Lana, baina, **bititza komuna sortzen eta sostengatzen duen jardueraren** arabera definitu behar da. Subjektuak manufakturatze egin behar dira, subjektua ez baita jaiotzen, baidetik eta sortu egin behar da, eta subjektuak manufakturatze edo “ekoizte” horretan, emakumeek beste posizio bat dute. “Ekoizpen” horrek ahalbidetzen du egungo kapitalismoa zein patriarkatua izatea gizonak eta emakumeak sortzen dituen menderatze-sistema material bat. Era berean, sistema koloniala oinarritzen da mundu mailako giza bizitzaren ekoizpenaren arraza-/kolonia-banaketan, zainketa globalen katea deritzona barne. Beraz, ulertu beharra dago **lana besteren konturako soldatapeko jardueraren baina zabalagoa dela**. Zentzu horretan, honela defini daiteke **lana**: esfortzu mentala eta/edo fisikoa eskatzen duten zereginak egitea, helburu dutenak giza premiei erantzuteko ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea, bititza ekoiztea.

Beraz, ekonomia kapitalistak lana deitzen duena lan mota bat baino ez da, soldatapeko lana, enplegua eta besteren kontura ordaindutakoa. 2020ko pandemiarekin agerian geratu zen emakumeek egiten duten lan guztia. Gainbalioa sortzeko beharrezkotzat jotzen zen ia guztia itxi egin zen bitartean, bititza eta ongizatea sortzeko beharrezko lanek jarraitu egin zuten. Bizirauteko eta bizitzarako funtsezkoak diren lan horiek, oro har “**zaintza**” deiturikoak, emakumeek egiten dituzte

¹⁵ Federici, S. *Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*. Eskafandra, 2017

gehienbat, eta, subalternitate-baldintzetan, hau da, oso gutxi ordaintzen dute edo ez dute ezer ordaintzen, nahiz eta balio handia izan (erabilerakoa)¹⁶.

Biztanleria “aktiboaz”, “okupatuaz” eta “langabeaz”

Lanaren kontzeptua berriro aztertzea garrantzitsua den heinean, interesgarria da gauza bera egitea “lan-merkatuaren” analisisetan erabiltzen diren definizioekin; alegia, lana merkantziatzat hartzen dutenekin eta lurralde jakin batean bizi den biztanleriaren ezaugarriak enpleguari eta enpleguaren kalitateari lotuta aztertzen saiatzen direnekin. Hala, **“biztanleria aktiboa”** deitzen zaie ordainsari edo soldata baten truke ondasun eta zerbitzu ekonomikoak ekoizteko eskulana ematen duten 16 urte edo gehiagoko pertsonen. Gure ustez, egokiagoa da **“lan-indarra eskaintzen duen biztanleria”** deitzea. Izan ere, merkatuan lan-indarra eskaintzen duten pertsonen soilik deituta biztanleria aktiboa, prestigioa kentzen zaie soldatarik gabeko gainerako lanei. Etxeko lanak edo borondatezko lanak egiten dituzten pertsonak, baxterkeriaz, “ez-aktibotzat” hartzen dira.

Bestalde, **“biztanleria okupatua”** deitzen zaie enplegu bat duten 16 urte edo gehiagoko pertsona guztiei. Pertsona okupatu asko dago edozein jarduera edo zereginetan beste pertsona batzuen beharrak asetzen dituen eta enplegurik ez duena. Konbentzionalki eta asmo argi batekin biztanleria okupatua deitzen zaiona, egiazki **“biztanleria enpleguduna”** da.

¹⁶ Goikoetxea, J. *Ibid.*

Azkenik, **“biztanleria langabea”** deitzen zaio enplegurik ez duten eta lanerako prest dauden 16 urte edo gehiagoko pertsonen multzoari. Termino horrekin, ez dira aintzakotzat hartzen enplegurik ez duten baina beste lan mota bat egiten duten pertsonak. Beraz, egokiagoa da **“biztanleria langabetua”** deitzea. Alegia, ekonomia kapitalistak nahastu egiten ditu pertsona langabeak eta pertsona langabetuak. Izatez, ordea, pertsona “langabe” gehienak, zentzu hertsian, errendatunak dira, hau da, eurek edo euren senideek metatutako kapitaletik bizi dira; finantza-merkatuetan egindako-eragiketa espekulatiboetatik; lokalen eta/edo lurraren errenta edo alokairuetatik (askotan oinordetzan jasotakoak); landa-jabetzetatik datozen dirulaguntzetatik; eta abar. “Langabe” horietako gehienek beste pertsona batzuk kontrata ditzakete zaintza- eta etxeko lanak egiteko.

Natura eragile ekonomiko: pribatizaziotik komunera

Neurri handi batean, ekonomia kapitalistaren jatorrian **lurraren pribatizazioa** dago, esan nahi baita, Naturaren erabilera kolektiboaren abolizioa. Ustezko legezko bideek maizterren aurkako indarraren, iruzurraren eta larderiaren erabilera ezkatatu zuten maiz. Horrela, inork sortu ez zuen zerbait jabetzan hartu zuen gainerako pertsonak erabiltzeko eskubidetik kanpo utzi zituen norbaitek. Herri-lurrerako sarbidea galdu bezain laster, herritarrak mendekotasun-egoerara igaroziren, horien lurrik gabeko egoerak botere izugarria eman baitzien enplegatzaileei.

“Komuna” oso termino edo printzipio garrantzitsua da mugimendu eta pentsamendu-korrante askorentzat, hala nola jabetze pribatua (*enclosure*, itxitura) gizartearen, kulturaren eta bizitzaren esparru guztietara hedatzeari aurka egin nahi diotenentzat. Hasiera batean, “komuna” zela ulertu zen komunitate bereko nekazariei bide, baso, larre eta abarren erabilera kolektiboa ahalbidetzen zien arau multzoa, ohituran oinarritua. Gaur egun, eduki zabalagoa ematen zaio, eta kapitalismo neoliberalaren izenean egindako pribatizazio, itxitura, merkantilizazio prozesu, suntsiketa eta bestelako harrapaketen jomuga bihurtu daitezkeen guztia hartzen du barnean.

Diruaren berraztertze soziala

Egungo ekonomia kapitalistan, aberastasun komunaz jabetzeko gaitasun indibiduala izugarria da. Horretarako, funtsezkoa da ekonomiaren diru-oinarria. Aberastasuna desberdintasun handiekin metatzeko gaitasun izugarri horri aurre egiteko, bi aukera daude. Alde batetik, **desmonetizazioa** dago, eta horren oinarria da, autosufizientziak eta autonomiak gain, partikularren edo kolektiboen artean ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko. Horretarako, garrantzitsuak dira ekoizpena eta kontsumoa zuzenean lotzen dituzten esperientziak.

Beste aukera da merkatudun gizartearentzat baliagarriak diren “moneta sozialak” sortzea. “Moneta sozialak” balio-erreserba gisa erabili ezin diren truke-bitartekoak dira. Hori lortzeko, denborarekin balioa galtzen dute (“herdoildu” egiten dira), biztanleek “sortu” egin ditzakete, edo material ugari samarretan oinarritutako salgai-dirua dira. Dirua sortzeko ekonomia errealdaren jarduerara egokituta egon beharko

luke, moneta-burbuilarik ez sortzeko. Gainera, kreditua mutualista da: sareko kideek komunitatearen beraren mesedetan eskaintzen dute. Sistema horiek gizarteratze askoz handiagoa ahalbidetzen dute, ez baita dirurik behar sisteman sartzeko, gizarte-intereseko trebetasunak izatea baizik. Beraz, trukeko bide bat sortu behar da, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazioa erraztuko duena, baina gizabanakoek dirua gizarte-botere gisa metatzeko aukera mugatu edo baztertuko duena. Laburbilduz, tresna horiek noizbehinkako trukeak errazteko ordainbide gisa soilik balio behar dute, eta ezin dira metatu daitezkeen aberastasunaren ezaugarri bihurtu sekula¹⁷.

Lan-motak						
Diruz ordaindua					Diruz ordaindu gabea	
Soldatapekoa / besteren kontura			Autoenplegua / norbere kontura		Zaintzak	Borondatezkoa
Enpresa kapitalista		Administrazio publikoa	Indibiduala	Kolektiboa		
Printzipio arautzaileak	Merkatua Interes propioa	Merkatua / zerbitzu publikoa	Merkatua/ interes indibiduala	Merkatua/ interes kolektiboa	Familia / elkarrekotasuna	Komunitatea / Elkarrekotasuna / Solidaritatea
Produktuaren jabetza	Enpresaria	Estatua	Langilea	Langilea	Familia / komunitatea	Komunitatea
Ekoizpenbideen jabetza	Enpresaria	Estatua	Langilea	Langileen kolektiboa	Familia	Irabazi asmorik gabeko erakundeak
Lanaren antolatzailerak	Enpresaria	Ordezkeri politikoa	Langilea	Langileen biltzarra	Familia	Definitu gabea

2. taula. Lan-motak.

Iturria: Oscar García Jurado (Talaio Kooperatiba)

¹⁷ Gai horrekin oso lotuta dago finantzen berriz aztertzea. Bigarren zatiko azken puntuan finantza etikoen gaia jorratuko da.

Ekonomia Soziala(k)

1. Definizioak eta tipologiak

Sarrera

Ekonomia kapitalista ezartzeko oinarritzko hiru elementu behar izan ziren: jabetza pribatua, mendeko lana eta merkataritza-esleipenaren merkatu-mekanismoa. Ekonomia kapitalistak propietate pribatu bihurtu zituen ondasun komunak eta produkzio- eta bizi-baliabideak. Ordudanik, jabeek haien zatiak lan egiteko prest zeuden beste pertsona batzuk behar zituzten, eta jabe ez zirenek soldata bat behar izan zuten, bizitza modu autonomoan ateratzeko gero eta ezintasun handiagoa zegoen eta. Gainera, kapitalismoak merkatuak esleitzeko eta banatzeko mekanismo hegemoniko bihurtzea behar izan zuen. Ekoizpen-jardueraren helburu bakarra etekinen maximizatzea bilakatu zen, emakumeek egindako zaintza-lan ordaindua eta ordaindu gabea ustiatuz. Ekoizpenak (beharri-zanak asetzeko beharrezkoa) helburu izateari utzi zion eta (irabaziak lortzeko) baliabide izatera pasatu zen.

Ekonomia sozialak gabeziaren, jabetzearen eta ustiapenaren ekonomia horri aurre egiteko sortzen dira, eta lehen-tasuna ematen zaie pertsonen beharrei, etekinen eta irabazi enpresarialen ginetik. Hala ere, ez dira gutxi beren burua

ekonomia sozial gisa definitzen duten erakundeak, eta enpresa kapitalistaren praktikak eta are helburuak erreproduzitzen dituztenak. Gainera, ekonomia sozialen zati bat akritikoki egokitzen da merkatu kapitalistara, eta beste batzuek, berriz, sistema menderatzaileari aurre egiteko eta xede emantzipatzaileak dituzten printzipioak, helburuak eta funtzionamendu-moduak bilatzeko bokazioa dute. Horregatik guztiagatik pluralean hitz egingo dugu ekonomia sozialaz aritzean.

Ekonomia sozialak

Mundu osoan zehar, ekonomia kapitalistatik urruntzen diren praktika sozioekonomiko ugari daude, batzuk gehiago eta besteak gutxiago, eta, beraz, gutxi gorabehera ekonomia eraldatzaile dei genezakeen zerbaitera hurbiltzen dira.

Europari dagokionez, **ekonomia soziala** deiturikoa herri-elkarteei eta kooperatibei lotuta agertu da historikoki, bai eta kolektiboek, erakundeek edo gizarte-mugimenduek ekonomia kapitalistak sortutako desberdintasunei eta bidegabekeriei aurre egiteko eta erantzuteko egindako proposamenei eta ekimenei ere.

Lehen hurbilketa batean, **ekonomia sozialak** honela definituko ditugu: irabazien gaitetik pertsonen premiak asetzeko lehenesten duten ekimen sozioekonomikoen multzoa¹⁸. Ho-

¹⁸ Sarrerako testu hau gai honetan sakontzeko leku egokia ez dela uste badugu ere, egokia iruditzen zaigu funtsezko gaia aipatzea, hau da: zein dira premia horiek (jana, beroa eta segurtasunaz gain)? Galdera horri erantzuteko, premia horiek historikoak direla suposatzen duen oinarriko posiziotik abiatu behar da, eta, beraz, sistema politikoek zehazten dituzte.

rien artean badira forma juridiko jakin batzuk zera bermatzen dutenak: irabaziak mugatuak izango direla edo zuzenean ez direla existitzen. Hala nola kooperatibak, "hirugarren sektorea" deiturikoa (ekimen sozialeko elkarteak, fundazioak eta kooperatibak), gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak eta gizarteratzeko eta laneratzeko ekonomia (laneratzeko enpresak, enplegatzeako fundazio edo zentro bereziak). Ekonomia kooperatiboek barne-kudeaketa demokratikoa funtsezko elementutzat dute, eta hirugarren sektoreko erakundeek, berriz, beren jardueraren eragin sozial positiboa azpimarratzen dute.

Kasu gehienetan, praktika ekonomiko horiek ez dute kontraesanik ikusten ekonomia kapitalistan integratzean; aitzitik, beren aburuz, ekonomia kapitalista osa dezakete edo horrek sortzen dituen arazoetako batzuk konpon ditzakete. Ekonomia sozialen alderdi hori nagusi da mendebaldeko herrialdeetan, eta horiek, gero eta finantzatuagoa eta kontsumistagoa den ekonomia kapitalistara menderatuta edo marjinalki egokitzeko ahaleginean dihardute.

Ekonomia sozial kapitalista mota horretarako definizio egokia Europar Batasuneko gizarte-ekonomiari buruzko txostenetik dator, hain zuzen Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) sustatua. Hauxe da definizioa: "Formalki antolatutako enpresa pribatuen multzoa, erabakitzeko autonomia eta bat egiteko askatasuna dutenak, merkatuaren bidez bazkideen beharrak asetzeko sortuak, ondasunak eta zerbitzuak ekoiztuz, ziurtatuz edo finantzatuz, eta zeinetan bazkideen artean mozkinen edo soberakinen balizko banaketa eta erabakiak hartzea ez dauden lotuta zuzenean bazkide

bakoitzak emandako kapitalarekin edo kotizazioekin, baizik eta bazkide bakoitzari boto bat dagokiolarik, baina edozein kasutan erabakiak hartzea prozesu demokratiko eta parte-hartzaileen bidez gauzatzen dira. Ekonomia sozialak ere biltzen ditu formalki antolatutako erakunde pribatuak, erabakitzeko autonomia eta bat egiteko askatasuna dutenak, familien alde merkatukoak ez diren zerbitzuak sortzen dituztenak, eta soberakinak baleude, ezingo dituzte horiek sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek jabetu¹⁹. Definizio hori honela laburbil daiteke: “Modu formalean antolatutako enpresa pribatuen multzoa, erabakitzeko autonomiarekin eta atxikitze askatasunarekin, bazkideen beharrak merkatuaren bidez asetzeko sortuak”.

Ekonomia Sozial eta Solidarioak

Ekonomia Sozial eta Solidario deiturikoak (ESS), ordea, harreman ekonomikoak birpentsatzeko ahalegina dira, beste produkzio-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harreman batzuk eraikiz. Esperientzia multzo hori osatzen dute proiektu heterogeneoek, antolakuntza-modu desberdinek eta helburu berberak partekatzen eta lortu nahi ez dituzten hainbat praktikek.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren barruan sartzen dira, ekonomia sozialeko erakundeez gain, **ekonomia komuni-**

¹⁹ Monzón, J.L. *Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector*. CIRIEC-España, Revista de economía Pública, Social y Cooperativa, 2006, 56. zenb. 9-24 or.

tarioak deituak. Hau da, premiak asetzea bilatzen duten artikulazio kolektibo guztiak, non orokorrean, soldatarik gabeko lanaren pisua funtsezkoa den. Kontua ez da hainbeste ordainsaria, komunitate edo talde bateko kide eta partaide izatea baizik. Jarduera ekonomiko horiek ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzte, pertsonen erosteko ahalmena edo dirua (truke-balioa) taldearen edo komunitatearen (erabilera-balioa) jabetzaren eta onarpenaren mende jarriz. Komunitateko kide izateak baldintzatzen eta arautzen du zerbitzu komunitararako sarbidea.

Ekonomia komunitarioekin lotuta, **herri-ekonomia** dago, hartu-eman eta elkarlanen gama zabala eta dinamikoa biltzen duena, eta munduko biztanleriaren zati handi baten biziraupena ahalbidetzen duena (batez ere periferietan). Etxeko unitateek, familiek edo zaintza taldeek askotariko estrategiak garatzen dituzte kideen beharrei erantzuteko. Eragile kolektibo horiek hainbat estrategia garatzen dituzte, eta horretarako konbinatzen dituzte soldatapeko lana, autokontsumoko jarduerak, norberaren konturako merkaturako ekoizpena, emigrazioa eta bidalketak, edo baliabide publikoen erabilera, besteak beste.

Beste ekonomia batzuk

Ekonomia sozialen arloan beste praktika, fenomeno edo mugimendu batzuk sartu dira. Esate baterako, **ekonomia kolaboratiboak**, hau da, erreferentzia egiten dietenak proiektu, enpresa, erakunde, komunitate eta plataformei —normalean oinarri digitalekoak—, zeinak ondasunak, zerbitzuak edo ezagutzak partekatu, trukatu, saldu edo alokatzea ahalbide-

tzen baitute. Ekonomia horien barruan daude hala platafor-
ma-kapitalismoa, nola beste bide edo tarte batzuk bilatzen
dituzten eragileak, zeintzuek ulertzen duten ekonomia kola-
boratiboa prokomunaren eraikitze eta plataforma teknologi-
koen kooperatibizazio gisa.

Beste alde batetik, ohiko enpresen eta ekonomia kapita-
listaren dilema etikoak eta inpaktu negatiboak arintzen saia-
tzen diren mugimenduak edo praktikak daude. Hor sartzen
dira **Gizarte Erantzukizun Korporatiboa** (GEK) eta **Guztien
Ongiaren Ekonomia** (GOE). Lehenak ia ez du konnotazio
desberdinik ekonomia kapitalistarekiko, ekonomia sozialen
barruan sartu ahal izateko. Bigarrenari dagokionez, pertsona
batzuentzat GEKren barruko beste aurrerapen bat da, eta
beste batzuentzat, berriz, paradigma ekonomiko eraldatzai-
le berri baten planteamendua; izan ere, onura indibiduala-
ren maximizazioan oinarritutako egungo eredu ekonomiko
birbideratu nahi du, ondasun komunaren maximizazioan oi-
narritutako ikuspegi baterantz. Gure ustez, jabetza, balioa
edo lana bezalako oinarrizko gaiak jorratzen ez diren hei-
nean, horrelako mugimenduak proposamen aringarrien ba-
rruan kokatzen dira, eraldatzaileetan baino gehiago, betiere
ekonomia kapitalistaren “externalitateak” arintzean sortzen
diren ondorio positibo guztiak gutxietsi gabe.

2. Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE)

Idea orokorrak

Ekonomia kapitalistaren osagai ziren langileria eta prakti-
ka alternatiboa alboratuz joan da mugimendu kooperatibista
gehienean. Langileen borrokekin zuen harremana urrun ge-
ratu zen denboran, eta kooperatiba gehienak soldatapeko
mendeko pertsonen enplegatzaileak dira. XXI. mendeko koo-
peratiba gehienak merkaturatzearen, nekazaritzaren, etxebi-
zitzaren eta kredituaren esparruetan aritzen dira. Horregatik
guztiagatik, nazioarteko kooperatibismoaren zati handi ba-
tek uko egin dio ekonomia kapitalistaren alternatiba izateari,
hasieran mugimenduak bestelakoa izan nahi bazuen ere. Ho-
rregatik esaten da “**kooperatibismo kapitalista**” dela nagusi.

Hala ere, ekonomia sozialei buruzko egungo eztabaidak
autokudeaketaren aldarrikapena barne hartzen du maiz,
ekintzaitzak funtzionatzeko modu gisa. Zentzu horretan,
kooperatiba da autokudeaketa mekanismo erregularrekin
garatzea ahalbidetzen duen egitura formal nagusia. Mun-
duko leku askotan autokudeaketa aipatzen da ekonomia ka-
pitalistaren nagusitasunari aurka egiteko erresistentzia eta
alternatiben multzo gisa, non lanak harreman ekonomikoak
antolatzen dituen kapitaletik era autonomoan. Azken hamar-
kadetan, esperientzia ekonomiko autogestionarioek unitate

ekonomikoetako langileak zuzenean kontrolatzeko mekanismoak sortu dituzte, nola ohiko kooperatiba formetan, hala gizarte-mugimenduetatik datozen biziraupen ekonomikoko erakunde berrietan edo berreskuratutako enpresa eta lantegietan.

Ekonomia Sozial Eraldatzailea praktika zehatzetatik eratuz joan da, gehienbat **kooperatibismo autogestionario**arekin lotuta. Praktika horiek hainbat sektore eta lurraldetan eman dira, leku zehatzetan, eta kontzeptualki beren eraldaketa-bokazioa berresteko beharra garatu da. Hau da, hainbat kolektibok eguneroko jardunean aurrera eramaten dituzten praktikak kokatzeko ideiak bilatu eta sendotu dituzte.

Beraz, **ekonomia Sozial Eraldatzaile (ESE)** izenez zera ulertzen dugu (ekonomia sozial eta solidarioa, eraldatzeko bokazioa edo praktika emantzipatzaileak dituen): bizitza mantentzea eta hobetzea helburu bakarra izango duen sistema sozioekonomiko alternatibo baterantz jo nahi duten ekimenen multzoa; horrek eta ez bestek izan beharko luke-eta ekonomiaren (adjektiborik gabe) jomuga.

Bokazio eraldatzailea duten ekonomia sozialeko erakunde eta praktikak honetan bereizten dira ekonomia sozialaren barruan sartzen diren gainerako erakundeetatik: batetik, irabazien gaineratik pertsonen beharrianak asetzea dutela lehentasun, eta, bestetik, **indarrean dagoen ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa** bilatzen dutela. Esan nahi baita: aurrera egin nahi du ekonomia sozialean, baina ekonomia kapitalistaren alternatiba gisa, eta ez hura legitimatzeko.

Charles Gidek zioenez, “kooperazioa (edo lankidetz) bazkideen mesederako elkartea da, baina kooperatibismoa gizarte-emantzipazioko sisteman oinarritutako lankidetz da”. Ekonomia Sozial Eraldatzaileak **erldaketa edo emantzipazio sozialaren** helburu hori bilatzen du.

	Ekonomia		
	Kapitalista	Soziala	Sozial Eraldatzailea
Helburua	Kapital-metaketa	Premiak asetzea	Bizitza erreproduzitzea
Jabetza	Pribatua	Pribatua / komunitarioa	Komunitarioa
Lana	Soldatapekoa	Soldatapekoa / kooperatiboa	Kooperatiboa / autogestionatua
Balioa	Trukea	Trukea / erabilera	Erabilera / trukea
Kontsumoa	Mugagabea	Mugatua	Mugatua
Eragilea	Kapitala	Kapitala / lana	Lana
Boterea	Kapitala	Kapitala / Pertsonak	Pertsonak / komunitateak

3. taula. **Ekonomia-motak.**
Iturria: Oscar García Jurado (Talaio Kooperatiba)

Beste lan bat, beste jabetza bat, beste balio bat

Ekonomia Sozial Eraldatzailerantz egiteko funtsezkoa da alternatiba ez kapitalistak bilatzea hiru **oinarrizko faktore ekonomikoetan**: lana, jabetza eta balioa. Bestela esanda, nekez hitz egin dezakegu ekonomia eraldatzaileei buruz, erakunde horiek ekonomia kapitalistaren barruan hartzen duten formak bere egiten badituzte, hau da, lan menderatzailea, truke-balioa eta jabetza pribatua.

Kapitala lan-indarraren merkantilizazioaren bidez bakarrik erreproduzi daiteke sistematikoki. Horrek inplikatzeko du gizarte-lana, alegia beste pertsona batzuentzako egindako lana, kapitalaren produkzio eta erreprodukzioa begirako lan besterik ez bihurtzea (eta ez Bizitza). Horren aurrean, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak (ESE) pertsona batzuek beste batzuk ustiatzea galarazten lagundu behar du eta lankidetzaz ezartzen lan-prozesu komun batean, **lan autogestionarioa** protagonista dela. Gainera, ESEk Bizitza mantentzea eta aberastea izan nahi badu helburu, lan guztiei erantzun behar die, soldatadunak izan edo soldatagabeak. Beraz, funtsezko erronka da zaintza-lanak barneratzea, emakumeei kanpo-eragin negatiboak ez egozteko. Aurreko guztiak merkataritza-zigorrek dakartza berekin: merkatu kapitalistak zaintza-lanetik eratorritako kostuak bere gain hartzea zigortzen du. Horregatik, merkatu eta kontsumo konbentzionalari alternatibak bilatu behar zaizkio (Estatuaren esku-hartzea, merkatu sozialak, kontsumo alternatiboak, etiketa ekofeministak, etab.).

Mendekotasunik ez duen beste lan bat bilatzea erabat lotuta dago pertsonen baldintza materialen oinarri diren ekoizpen- eta/edo bizitza-bitartekoen jabetza pribatua eza-batzearekin. ESEk ekoizpen-sistema komunitario berri bat sustatu behar du, jabetza pribatuaren alternatibak bilatzen dituen. Ondasun eta zerbitzuak ekoizteko unitate ekonomiko eraldatzaile bat **erabiltzeko moduetan eta/edo jabetza kolektiboan edo komunitarioan** oinarritu behar da. Banaketa, pilaketaren aurkako printzipio gisa, honako hauetara hedatu behar da: ekoizpen-ondasunen edo -bitartekoen kudeaketara, erabakiak hartzera, soberakinetara, erantzukizunetara, etab. Ildo horretan, interesgarria da gogoeta egitea “baliabideen funts kolektiboak” (produktiboa, finantzariora, inbiliariora eta abar) ezartzei buruz, zeinetan jabetza kolektiboa izango den, demokratikoki kudeatuko den, eragile askok parte hartuko duten (lan- eta kontsumo-kooperatibak, elkarteak, fundazioak, finantza-etikoen erakundeak eta abar) eta ESEri lotutako helburuak izango dituzten, ekonomia kapitalistatik eta horren ondoriozko espekulaziotik urrun.

Hirugarrenik, ondasunak eta zerbitzuak ahal den neurrian **erabilera-balioaren** arabera ekoiztea da kontua; guxtienez truke-balioa erabilera-balioaren mendekoa izatea, eta ez alderantziz. Ekonomia kapitalistaren oinarria da ondasun eta zerbitzuei eskari kaudimendunak edo erosteko ahalmenak markatzen duen balioa ematea. Norbaitek ez badu erosteko ahalmenik, hau da, dirurik, ezingo ditu bere beharrak ase, ez da existitzen, ez du bizitzeko eskubiderik. Ziur aski, ekonomia sozialeko egungo erakundeek edo

ekoizpen-unitateek erdiesten duten ardatz edo elementurik zailena da; izan ere, merkataritza-testuinguru kapitalistak ez die uzten autonomia-maila handirik izaten. Zentzu horretan, eta zaintza-lanen barneratzeari buruz hitz egitean azaldu dugun bezala, beharrezkoa da merkatuari eta kontsumo konbentzionalari alternatibak bilatzea. Honen aurrean, lehen aipatu-tako baliabide-funts kolektiboak baliagarriak izan litezke erabilera-balioaren arabera baliabideak markatu eta esleitzeko, eta, horrela, bizitzarako lehenasunezkoak edo estrategikoak diren ondasunak eta zerbitzuak desmerkantilizatzen.

Beraz, postkapitalismorantz eraldatzea bilatzen duen ekonomia sozialak jabetza pribatuari, mendeko lanari eta merkatuari edo truke-balioari alternatibak eskaintzea eskatzen du, edo, gutxienez, **merkatu-gizartea** bizitzarako funtsezkoak ez diren ondasun eta **zerbitzuetarako merkatuak dituen gizarte bihurtzea**.

Ekonomia Sozial Eraldatzaileko proiektu baten helburuak eta irizpideak

Ekonomia sozialeko proiektu batek ESEren ikuspegitik lortu nahi dituen helburuak honako 5 irizpide hauen arabera ezar daitezke:²⁰:

20 Alvear, A. Begiristain, M., Etxezarreta, E. eta Morandeira, J. *ESE iparrorritza. Ekintzailetza sozial kooperatiborako adierazle sistema baten proposamena*. KoopFabrika (koopfabrika.eus/argitalpenak), 2019. Lan honetan, helburu bakoitzerako irizpide batzuk ezartzen dira, eta, aurreko guztitik abiatuta, adierazle-sistema bat.

1. Lanaren burujabetza

Lan-burujabetza zera da: pertsona guztiek lan duina izateko duten eskubidea bermatzea, lan komunean eta balio eraldatzaileetan oinarrituta, eta produkzio-baliabideen jabetza kolektiboaren eta produkzio-harreman ez-kapitalisten formulen bidez. Ekoizpen-harreman horiek erabakitzekeo prozesu demokratikoetan eta bidezko banaketa-sistemetan oinarritu behar dira, eta ingurunearen eta bizitzaren egungo eta etorkizuneko iraunkortasunarekin bateragarri egin behar dira.

ESEko proiektu batek honako irizpide edo emaitza hauek sortzen ditu lan-burujabetzaren helburua betetzen denean:

- a) **Lana** pertsona guztiek ekonomian eta komunitatean parte hartzeko tresna gisa ulertzea. Era berean, lan egiteko askotariko erak hartzen dira kontuan, eta ordaindutako enpleguez gain, ordaindu gabeko zaintza-lanen eta boluntarioritza-lanen arteko oreka eta aintzatespena ahalbidetzen da.
- b) Atxikimendu asketik sortzen den eta, aldi berean, autonomia sortzen duen proiektuaren eraketa autonomoak **autokudeatutako/ autoeratutako lanaren** aldeko apustua egiten du. Pertsonen erabakian oinarritutako erakundea da, autoerregulazio-prozesuak biltzen dituena, autoantolaketatik abiatzen dena, autokudeaketa eskatzen duena eta autogobernu pertsonala eta kolektiboa gidari dituena. Autonomia modu hori proiektuaren parte diren pertsonen beren jarduerak gauzatzen dituzten egoeretan ere aplikatzen da (beste erakunde eta/edo eragile batzuekin akordioak sinatzea), jarduera horien kontrol demokratikoa bermatzeko.

- c) Beharrezkoa da **parte-hartze integrala, demokratikoa eta inklusiboa** ahalbidetzea, bai kudeaketan, bai emaitzetan eta jabetzan. Gainera, ahal den neurrian, interesgarria da erabiltzaileentzat, bezeroentzat eta erakundearen interesa duten eragileentzat parte hartze-ko izaera zabaltzea.

2. Ekimen kolektiboa

Helburu honen xedea da parte-hartzaileen artean erabaki-egitura demokratikoak eta elkartasun-mekanismoak ezartzea. Pertsonak, lana eta helburu sozialak lehenesten dira kapitalaren aurrean, kudeaketa gardena, demokratikoa eta parte-hartzailea eginez eta etekinen (ekonomikoak eta ez-ekonomikoak) banaketa ekitatiboa ezarriz.

ESEko proiektu batek honako irizpide edo emaitza hauek sortzen ditu ekimen kolektiboaren helburua betetzen denean:

- a) **Gardentasuna.** Proiektuko kideek erabateko eta zuzeneko sarbidea dute autokudeaketarako beharrezkoak diren informaziora, ezagutzara, kudeaketa-datueta, baliabideetara eta horien erabilerara, gardentasun-irizpideei jarraiki.
- b) **Bidezko banaketa.** Jarduerak sortutako emaitza ekonomikoen eta ez-ekonomikoen banaketa proiektuaren parte den pertsona bakoitzak egindako lan-ekarpenaren arabera izango da, edo, hala badagokio, erakundearen gizarte-helburuaren arabera, balizko zapalkuntzak gainditzeko eta emaitzen banaketan izaera demokratikoa txertatzeko.

- c) **Barne prestakuntza.** Proiektuaren kideen prestakuntza-maila da izaera kolektiboaren oinarria, pertsona guztien ezagutza-maila parekatzeak berdintasuna bermatzen baitu. Eta prestakuntzaren hiru eremuak sartu behar dira: operatiboa, ideologikoa eta teknika bideratzaileena.

3. Lurraldea eta eraldaketa soziala

Proiektuak ingurumenarekiko eta ingurune sozial, ekonomiko eta politikoarekiko konpromisoa izan behar du, tokiko garapen iraunkor eta komunitarioaren bidez, azken helburua eraldaketa soziala izanik, betiere ESEren paradigmaren barruan.

Helburu hori betetzen denean, ESEko proiektu batek honako irizpide edo emaitza hauek sortzen ditu:

- a) **Eragin politikoa.** Proiektuak eragin politikoa bilatu behar du, eztabaida sozioekonomikoetan eragile aktibo gisa parte hartuz eta emantzipazioko eta eraldaketa sozialeko helburuak bultzatuz.
- b) **Interkooperazioa eta izaera banatua.** Elkarrekiko laguntza eta mutualismoa antolatu nahi dira, maila antzeko kooperatiba-sareak indartuz. Interkooperazio hori zertu liteke elkartasun-tresna partekatutako sortuz, kooperatiba-sareak sortuz, sarearen barruan mekanismo zehatzak sortuz, edo sarerik eraiki gabe ikuspegi bera duten eragile/proiektuen ekintza komunen bidez. Lankidetzak helburu ekonomikoa izan dezake edo dimentsio politikoagoa har dezake, ordezkaritza/presio egiturak sortuz edo gizartea eraldatzeko mugimendu bihurtuz.

- c) **Kultura eta ondare komuna.** Proiektuak tokiko kultura-izaeraren aberastasuna eta aniztasuna indartu behar ditu, ondare komuna ekarriko duten kultura-ondasunak eta -baliabideak kontserbatzeko eta sortzeko gaitasunarekin. Tokiko kultura lurraldearen ikuspegi sistemikoan oinarritzen da, eta hurbiltasun-harremanak bertako hizkuntzan gauzatzen dira, euskaraz.

4. Bizitza Erdigunean

Ekonomia feminista eta ekologikoaren oinarriak barnertzen dira. Alde batetik, proiektua bat dator erronka ekosozialarekin, eta jarduera ekonomikoa energia, material eta hondakin gutxiagorekin egiten saiatzen da, irizpide ekologikoen arabera zainduz jardueratik eratorritako produktuen ezaugarriak bizi-ziklo osoan zehar. Horrela, metabolismo sozioekonomikoaren aldaketa azpimarratzen du, trantsizio ekosozialerako funtsezkoa baita. Beste alde batetik, merkatuak ordaindutako produkzio-lanak eta bizitzaren euskarrirako funtsezkoak diren ordaindu gabeko zaintza-lanak aitortuko ditu erakundeak, lan horiek egiteko baldintzak balioetsiz eta bermatuz. Horren bidez, boterearen eta lidergoaren adierazpenaren eraldaketan eragin eta erabaki nahi da, eredu ez-patriarkalak eta antiarrazistak garatuz, adieraziz eta azalduz²¹.

²¹ Hori posible izan dadin, hainbat erakunde politiko behar dira. Eta, ESEaren arkitektura politikoa ahalbidetzen duten egiturak testu honen helburuak gainditzen dituen gaia bada ere, bi obra adierazten ditugu, alderdi hauetan sakondu nahi duenarentzat baliagarriak iruditzen zaizkigunak: - Sassen, Saskia. *Territorio, autoridad y derechos. De los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales*. Katz. 2010 - Jessop, Bob. *El Estado. Pasado, presente, futuro*. Prometeo, 2019.

Helburu horiek betetzen direnean, ESEko proiektu batek honako irizpide edo emaitza hauek sortzen ditu:

- a) **Harreman arduratsua natura-baliabideekiko.** Proiekturako beharrezkoak diren energiak eta materialez hornitzeko politika arduratsua garatuko dira, eta horretarako, erosketek baliabide naturalen ustiapenean duten eragin negatiboa arinduko da; arreta berezia jarriko da erregai fosilen kontsumoa murrizteko edo ezabatzeko; jatorri berriztagarriko energia-iturriak erabiliko dira eta ingurumen- eta gertutasun-irizpideak bermatzen dituzten materialak erosiko.
- b) **Merkaturatze- eta banaketa-politika.** Proiektuak merkaturatzeko eta garraiatzeko politiketan karbono-isuriak murriztea ahalbidetuko duten erabakiak hartuko dira, merkaturatze-kanal laburrak edo zuzenak lehentsez, hala nola logistika-alderdien aprobetxamendu- eta eraginkortasun-mailak hobetuz.
- c) **Produkzio-zikloa ixtea.** Ekoizpen-prozesuan berrerabil eta birzikla daitezkeen euskarriak erabiliko dira (materialak, ontziak, poltsak...), eta sortutako hondakinen/soberakinen erabilera, murrizketa eta berrerabiltze- eta/edo birziklatze-maila neurtuko dira.
- d) **Zaintza-lanen alderdia lantzea.** Merkatu kapitalistak ordaindutako edo ordaindu gabeko zeregin edo lan guztiak egiteko behar diren denborak neurtuko dira/hartuko dira kontuan. Era berean, proiektuaren garapenean sortzen diren gatazkak negoziazioaren eta akordioaren ikuspegitik kudeatuko dira, eta horretarako behar diren baliabideak eta gaitasunak garatuko dira.

e) **Rolen eta lanen banaketa.** Emakumeen parte-hartzea eta erabakitze gaitasuna sustatuko dira, eta, horretarako, emakumeek proiektuaren lan- eta botere-eremuetan dituzten abiapuntuko desabantailak ezabatuko dira eta garatzeko aukerak zabalduko zaizkie. Halaber, proiektu baten barruko lan/rol ikusgarrienak eta ikusezinenak definituko dira, haien banaketa eta balizko dikotomiak eta hierarkizazio-mailak kontuan hartuta, proiektuko pertsona guztien erantzukizuna baita.

5. Iraunkortasun ekonomikoa


Bideragarritasun ekonomikoaren bilaketan, alde batetik, ko-prestakuntza politika ezarriko da jardueran inplikaturako eragile guztiekin. Beste alde batetik, autonomia eta bideragarritasun finantzarioa bermatuko dituen aniztasun ekonomikoa landuko da, hau da, hainbat jatorritako baliabideak eta gaitasunak mobilizatzeko eta eskuratzeko gaitasuna garatuko da, betiere proiektuaren gainerako dimentsioekin orekatuta.

Helburu hori betetzen denean, ESEko proiektu batek honako irizpide edo emaitza hauek sortzen ditu:

a) **Egonkortasun ekonomikoa.** Aldagai ekonomikoaren etengabeko jarraipena egiten da, sortutako balioak neurtuz (ekonomikoak eta ez-ekonomikoak) eta proiektuaren bizirapen ekonomikoa eta posizionamendu estrategikoa eta operatiboa baloratuz. Horretarako, hainbat jarduera bultzatuko dira, politika dibertsifikatuarekin, merkatu-aldaketekiko erresilientzia handiagoa ezartzeko. Gainera proiektuaren parte

den pertsona bakoitzaren motibazioak aktibo mantentzea ahalbidetuko duten bitartekoak ezarriko dira, beharrezko barne-berrikuntzako baldintzak hobetuz.

b) **Elkarrekotasun ekonomikoa.** Eragileen mobilizatiotik sortutako borondatezko harremanak indartuko dira, bai bidezko merkatukoak, bai merkatua erakartzekoak, elkarrekotasun-logiketan oinarrituta eta lotura solidoak indartzeko.



2. irudia. Adierazle-sistemaren helburuak ESE proiektuetarako
Iturria: KoopFabrika

Agertoki kooperatibo eraldatzailea sustatzen duten beste balio batzuetarako iturriak

Kooperatiba autogestionario emantzipatzaileak egongo badira, **pertsona kooperatibistak** behar dira. Kooperatiba eraldatzaileak egon daitezen, pertsona kooperatibistak egon behar dira, beste bide batzuk bilatzen dituztenak eta bide kapitalistaren hertsapena jasateko gai direnak. Emantzipazio soziala nahi duten pertsonak, ekonomia- eta lan-eremuan autonomia, autokudeaketa eta demokrazia beren gain hartzen dituztenak. ESEko erakunde horiek sortzeko, beraz, beste-lako ekimen ekonomikoak sortzeko balio multzo bat beren gain hartuko duten pertsonak behar dira.

Pirinioetako zuzenbidea

Pirinioetako zuzenbidean kooperatibismo eraldatzailea bultzatzeko elementu komunitario oso garrantzitsuak daude. Pirinioetako zuzenbidea euskal herriak hartu zuen forma juridikoa da, erromatar edo germaniar zuzenbidetik zetozen beste tradizioetakoak ez bezalakoak. Bertan sartzen dira herrialdea esparru guztietan antolatzen duten erakundeak: politika, familia, lana, etab.

Pirinioetako zuzenbideak hiru oinarri ditu²². Alde batetik, **Batzarre** edo auzo-kontzejuak (paroisses, Iparraldean): erromatarrak iritsi aurretik ere guztiz garatuak zeuden herri eta auzo guztietan. Auzoetako eta herrietako auzo-komunitateak euskal gizartearen antolaketa oinarri izan dira beti.

22 Lezamiz, M. *Derecho pirenaico y cooperativismo*. 2019. [sarean]

Lurren eta mendien kudeaketa eta erabilera auzo-batzar edo kontzejuen bidez egiten zen; gaur egun oraindik ere egiten dira herri eta komunitate batzuetan.

Beste alde batetik, **Auzolana**. Gaur egun ere, Deba-goienero zenbait auzotan eta Euskal Herriko beste herri batzuetan egiten da. Auzolanaren adierazpen moderno batzuk honako hauek dira: egungo irabazi asmorik gabeko elkarteak; arrantzaileen kofradiak; gazte mugimendua eta Gazte Topaketak; euskararen aldeko ekintzak, hala nola Korrika²³ edo Errigora²⁴; jai- eta txosna-batzordeak, etab.

Eta hirugarrenik, **herri- eta mendi-lurrak**. Ikerketa arkeologikoen erakusten digutenez, duela 3.000 urte baziren Pirinioetatik gertu, eta gaur egun ere badira eta kudeatzen dute haien erabilera Araban, Nafarroan eta Iparraldean. Amalurra ezin zen jabetza pribatuetan banatu. Lur eta baso komunalek aberastasunaren banaketa zuzena esan nahi zuten. Horiek kudeatzea demokraziaren eta parte-hartze sozialaren adierazpena ziren, eta hala izaten jarraitzen dute.

Antzinako balioetan oinarritutako kultura horrek Euskal Herriko kooperatiben sustraitze sakona azaltzeko balio dezake. Kooperatibismoak honako hiru elementu hauetatik edaten du, zentzu zabalean: boterea duten bazkide guztien batzarra; auzolana, bazkide bakoitzak egiten duen ekarpen edo lan gisa; eta komunala, kooperatiba guztien jabetza izatearen erreferente gisa.

23 <https://www.korrika.eus/eu/>

24 <https://www.errigora.eus>

Jornalari andaluziarren balioak

Halaber, Pirinioetako zuzenbideak bezala, **Andaluziako jornalari klasearen balioak** ere baliagarriak zaizkigu funtzio-namendu kooperatibo onaren printzipio gisa.

Hona laburbilduta: **“konplitzea”**, señorito andaluziarren parasitismo sozialaren aurrean, hau da, konplitzen due-nak lan onarekiko daukan duintasuna, bere buruaren eta besteekiko errespetuagatik; **“batasuna”**, zeinak posible egiten baitu estrukturalki desjabetuen indarra, beren lan-indarra menderatzaileek kontrolatzen dituzten baldintzetan alokatzera kondenatuak; **“banaketa”**, lurrarekin benetako lotura dutenei itzultzeko legezko sistema gisa (“lurra, lantzen due-narentzat”).

Gure ustez, balio horiek indarrean daude, eta beste kultura batzuetan ere badaude, bai eta egungo eta hiriko testu-guruetan ere: metatze-sistematik banaketa-sistemara eramango gaituzten urratsak egin behar ditugu (aberastasuna, boterea, denbora eta jabetza banatzera). Hala bada, kontua litzateke lehiatik konplitzera igarotzea (konpetentea izatea); indibidualismotik batasunera (kooperazioa), eta metatzetik, banatzera (bidezko banaketa).

3. Prozesu ekonomikoaren eraldaketa

Komuna ekoizpen-prozesuan

Ekonomia Sozial Eraldatzaileen hasierako erresistentziak eta ondorengo aurrerabideak **“prozesu ekonomiko”** integral baten garapena ekarri beharko du, ekonomia kapitalistaren helburuak, faktoreak eta kudeatzeko moduak alde batera utzita. Sortu ondoren, zalantzarik gabe, jasango dituen erasoetatik defendatu beharko da.

Prozesu ekonomiko eraldatzaile horrek gai izan beharko du ekonomia kapitalistaren alternatiba izango den **sortzeko, kontsumitzeko, banatzeko eta finantzatzeko** modu bat garatzeko, eta oinarri izango dituzte bai funtsezko erakundeak (edo lana, balioa eta jabetza ulertzeko eta definitzeko moduak), baita oinarritzko elementu ekonomikoen (pertsonak, natura, dirua) erabilera, kudeaketa eta bereganatzea ere, guztiak ere ekonomia kapitalistakotik oso bestelakoak. Ekonomia kapitalistaren alternatibak **organikoki** aurrera egin beharko du, osotasun bat bezala, eta zatien arteko lotura harmonikoak batuta.

Merkatuen (lanaren, finantzen, ondasun eta zerbitzuen) hertsatzeko gaitasuna gutxitzen duten prozesuen aurrerapena erabat lotuta dago ekoizpen- eta/edo bizi-bitartekoetatik jabetza pribatua ezabatzearekin, bai eta erabilera-balioan eta

autokudeaketan oinarritutako produkzio-sistema komunitario berri bat eraikitzearekin ere. Azkenean, erabilera-eskubideak, jabetza pribatuaren aurrean, beste oinarri kapitalisten alternatibei eragiten die, beste lan eta enpresa mota batzuk indartzea baitakar: lan eta enpresa autoantolatutak eta autokudeatuak. Lanaren antolaketa berregitea eta soldatapeko pertsona guztiek eurei dagozkien erabaki kolektiboetan parte hartzeko duten eskubidea aitortzea agindu politiko erabakigarriak izan ziren aurreko proposamen eraldatzaileetan. Berriz jarri behar da borrokan erdigunean lan-antolamenduaren eraldaketa, eta kapitalak behartutako kooperaziotik **jarduera komun emantzipatura** igaro behar da, jarduera autodeterminatu eta autoantolatuta.

Merkaturako ondasunen eta zerbitzuen edozein ekoizpen-unitatetan egiten den edozein prozesu demokratiko ez dator bat kapitalismoaren menderakuntzarekin. Jabearen subiranotasuna da lan-kontratuaren printzipio nagusia. Kapitalaren nagusitasuna nahitaez lotuta dago soldatapeko pertsonaren izaera menderatuarekin. **Produkzioaren eremuan komuna dena ezartzeak** esan nahi du erakunde horiek, kapitalaren menderakuntzatik aske, erakunde demokratiko bihurtu behar direla. Halaber, hori da baldintza soldatapekoek lana esplizituki kooperatiba autokudeatuen oinarrien arabera berrantolatu ahal izateko.

Merkatuaren eraldaketa eta interkooperazioa

Hala ere, praktika kolektiboen laborategia izanik ere, entitate edo proiektu kooperatibo eta demokratikoez lehiaren eta merkatu kapitalistaren mehatxuarean jarraitzen dute. Horregatik, oso garrantzitsua da **merkatu kapitalistaren** nozioari buruz hausnartzea. Kontua da ea posible den gizartearen berriro egokitzea edo kateatzea, hau da, kontsumo-aukeraketa indibidualen askatasuna kolektiboki erabakitako esparruetan inskribatzea (bereziki, tokiko mailan). Helburua da antolaketa ekonomiko bat planteatzea merkatuaren erakunde zibiko berri batekin, gai izango dena pertsona ekoizleen autogobernua kontsumitzaileen burujabetza kolektiboarekin lotzeko (non kontsumoa eta lana ez diren gatazkan egongo, baizik eta harreman kolaboratibo edo kooperatiboa izango duten).



3. irudia. **ESE Errizoma.**
Iturria: Talaios Kooperatiba

Orain arte esandako guztiak funtzionatzeko beste era bat eskatzen du prozesuaren edo ziklo ekonomikoaren aro bakoitzean (ekoizpena, banaketa, kontsumoa eta finantzak). Helburua da ekimen ekonomiko eraldatzaileak lotuko dituen **“zirkuitu ekonomiko eraldatzaile”** bat sortzea, eta, horrela, batez ere Europako ekonomia sozialean **“merkatu sozial”** deritzona sortzea. Merkatu edo ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta finantza-sare horrek parte-hartzaileen premien zati esanguratsu bat betetzeko aukera ematen duen heinean, partaideak ekonomia eta merkatu kapitalistetatik deskonektatu ahal izango dira.

Merkatu sozialak, beraz, **interkooperatzea** eskatzen du egungo mekanismo ekonomiko hegemonikoetatik, ahal den neurrian, deskonektatzeko. Horretarako, beharrezkoa da lurralde edo ekonomia jakin batean eragile ekoizle, banatzaile, kontsumitzaile eta aurrezle eraldatzaileen masa kritikoa nahi-koa lortzea, eta, hortik abiatuta, elkarrekin harremana izango duten lurralde-sareak eratzea.

Interkooperazioa eta atzeraelikatzea handitzea guztiz estrategikoa da horrelako ekimenen artean. Salgaiak ekoizten dituzten erakundeek honako hauek beharko dituzte: eragile edo entitate banatzaile alternatiboak, talde edo kontsumo-modu alternatiboak, baita finantza-tresna egokiak ere, horrelako esperientzietan inbertsioa handitzeko.

Kooperatibizazioa ez da inoiz kooperatibaren barrura mugatzen; aldiz, beste erakunde, eragile, kolektibo eta pertsona batzuetara hedatu behar ditu bere praktikak. Kooperatiba ezin da ulertu interkooperaziorik gabe.

Beste kontsumo bat eta beste banaketa bat

Etekinak maximizatzeko helburutik urrun dauden ondatsun eta zerbitzu eraldatzaileak ekoizteko unitateak bultzatzeak ekonomia kapitalistaren irizpide kontsumistetatik urrun dagoen kontsumoa eskatzen du (“erabilera” maximizatuta, prezioak minimizatuta). Hau da, ez da eraldaketa-erreproduktuziorik izango kontsumo eta banaketa eraldatzailearik gabe.

Ekonomia kapitalistak kontsumoaren hazkundera bultzatzen du irabazia sortzen duten ondatsun eta zerbitzuen ekoizpenaren hazkundera sustatzeko (errentagarriak termino kapitalistetan). Eraldatzeko bokazioa duten ekonomia sozialek beste helburu batzuk, beste dimentsio batzuk eta beste eragin batzuk bultzatzen dituzte: kontsumo indibidualistako aberastasun monetarizatuari eta zorion merkantilizatuari lotuta doan zerbitzuaren kontzeptutik harago doazenak. Beraz, kontua izango da **kontsumo-ereduak eraldatzea**, baita gogobetetze-sistema ere.

Esparru horretan, **“kontsumo eraldatzaile, arduratsu edo kontzienteaz”** hitz egiten da, eta norberaren beharrik eta horiek betetzeko modua zalantzan jartzen dituena da, alferrikako kontsumoak alde batera utzita eta kontsumo-erritmoak murrizteko joera hartuta. Gainera, objektuen erabilera-balioa lehenesten du, ahal denean partekatuz edo alokatuz, erosi beharrean. Eta, berri bat erosiz gero, ingurumen-jasangarritasuneko eta gizarte-justiziako irizpideak kontuan hartzea. Kontsumo arduratsuaz hitz egitean, bizi-estiloaz ere hitz egiten da, kontua ez baita marka edo

produktu bat beste baten ordean aldatzea soilik; aitzitik, bizitza gogobetegarri bat eramatea planetaren muga biofisikoen barruan, eguneroko praktikak eta balioak bateratuz. Beraz, kontsumoaren inguruan dauden errutinak eta gizartearen erakita dagoen guztia zalantzan jartzen dira, eta horrek trebetasun eta ezagutza berriak garatzea dakar berekin. Benetan arduratsua izan dadin, zereginen zuzen banatuta egon behar dute, eta aukera zehatzak testuinguruaren arabera diren arren, zera eskatzen du: gutxiago kontsumitzea, gure inpaktua murriztea eta ingurune hurbilenarekin dugun harremana handitzea.

Horrelako praktiketan parte hartzen duten eragileen artean, **kontsumo-taldeak** eta kontsumo jasangarriagorako **zirkuitu agroekologikoak** nabarmentzen dira. Hala ere, “kontsumo kolaboratiboa”, plataformen kapitalismotik urruntzen dena eta “partekatze” praktikan kontzentratzen dena, dela garraio pribatua, dela beste edozein premia.

Beste kontsumo eraldatzaile baten praktikei dagokionez, hainbat ezaugarri dituzten modu kooperatiboko **banaketa-proiektuen** esperientziak sortu ohi dira. Gehienetan gobernantza-eredu demokratikoei jarraitzen diete, eta garrantzi handia dute aldagai etiko eta ekologikoei. Forma juridiko nabarmenena kontsumo-kooperatibak dira. Eta hala merkatu sozialak sortzen dira “prosumitzaile” kritikoen artean, hau da, harreman horizontaleko kontsumitzaile-ekoizleen artean.

Finantzak eta finantza-bitartekaritza etiko eta solidarioa

Aurreztutako dirua –edo, hobeto esanda, diru horren erabilera erabakitzeak aukera– botere-iturri bat da, eta botere hori, normalean aurreztaileena izango litzatekeena, finantza-erakundeek gauzatzen dute beren interesen arabera eta ia kontrolik gabe. Horrek esan nahi du finantza-sistema kapitalistak aurrezkiaren errentagarritasun ekonomiko hutsaren zati esanguratsu bat bereganatzeaz gain, bere helburuetarako erabiltzen duela baliabide horiek erabiltzeak dakarren boterea. Hala ere, dirua prozesu sozioekonomiko eraldatzaileak eraikitzea ahalbidetzen duen tresnatzat har daiteke. Hartara, finantzek berezko helburu izateari uzten diote, ahalik eta irabazi gehien lortzeko asmoarekin, eta helburu handiago baterako tresna edo bitarteko bihurtzen dira: eraldaketa ekonomikoa.

Horretarako, aurreztutako dirua beste era batera erabiltzen dela eta bestelako xede bat izan dezan zaindu behar da. Modu desberdinean aurreztutako diru hori **finantzen eta finantza-bitartekaritza etiko eta solidarioaren** jatorria da. Tresna horiek funtsezkoak dira ekonomia eraldatzaileentzat, eta ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-proiektu eraldatzaileak finantzatzeko lanabes dira. Horretarako, ezinbestekoa da **erantzunkidetasun finantzarioa**; izan ere, aurrezkien fluxuaren arabera, baliabideak hornitzen eta ekonomia kapitalista indartzen lagunduko da, edo beste ekonomia batzuen aldeko apustua egingo.

Alde batetik, badira **finantzaketa-tresna etikoak**. Tresnak baino ez dira, behar jakin batzuk asetzen dituzten finantza-produktuak, baina inolaz ez dituzte ematen finan-

tza-erakunde batek (konbentzionala edo etikoa) eskaintzen dituen produktu eta zerbitzu guztiak. Adibide moduan aipa daitezke inbertsio funts etikoak eta mikroredituak.

Beste alde batetik, bada **banka etikoa** ere, banka sozial, jasangarri, alternatibo edo zibiko izenez ere ezaguna. Finantza-erakunde mota bat da, eta onura sozialak lortzeko aukera ematen du –finantza-erakunde konbentzionalen etekin ekonomikoak lortzeaz gain–. Azken horietatik bereizten da ezagurri hauengatik: finantzatzen dituen proiektuen izaera soziala, inbertitzen dituen enpresen iragazki etikoa eta ekintzen gardentasuna. Gainera, gizarte- edo ingurumen-eduki garrantzitsua duten proiektuak finantzatzen dituzte. Banku etikoak, tradizionalak bezala, dagokien diru-agintaritzak arautzen ditu, eta banku tradizionalaren baldintza berak bete behar dituzte.

Banku etikoak eta finantza etikoen erakundeak desberdinak dira: azken horiek maileguak edo inbertsio-funts etikoak ematen dituzte, Banku Zentralaren edo moneta-agintaritzaren erregulazioa alde batera utzita; beraz, ohiko finantzetatik gehiago bereizi daitezke. Horien artean dago **Coop57²⁵ finantza-zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatiba**. Labur esanda, zerbitzu-kooperatiba bat da, bere baliabide propioak ekonomia sozialeko proiektuetarako finantza-laguntza ematera bideratzen dituena. Baliabideak pertsona fisiko edo juridikoan (bazkide laguntzaileak) aurrezkietatik datoz. Ekonomia sozialeko erakundeetan, baliabideak zerbitzu-bazkideentzat erabiltzen dira. Horrela, kooperatiba oso tresna erabilgarria bihurtzen da ekonomia sozialeko erakundeen eta aurrezkiek horrelako ekonomiak bultzatzeko balio izatea nahi duten pertsonen arteko sarea ehuntzeko.

²⁵ <https://coop57.coop/>



Lurralde-garapena(k)

1. Lurralde-neoliberalismoa

Benetan existitzen den neoliberalismoa

Neoliberalismoak hainbat estrategia jarri ditu martxan, kapitalak nahi ez dituen beste agertoki batzuk martxan jartzea eragozteko. Neoliberalismoaren mugimendu intelektuaren jatorria Lehen Mundu-gerran dago, Austro-hungariar Inperioa desagertu ondoren, pertsona talde bat lanean hasi zenean demokrazia berrietako erakundeek ekonomia kapitalista zalantzan jartzeko aukerarik izan ez zezaten. Hasiera-hasieratik, neoliberalismoaren helburua kapitalismoa demokratizatik eta zatiketatik babestea izan zen²⁶.

Duela hamarkada batzuetatik hona, kapitalismo neoliberalak Estatuak birdiseinatu du kapitalismoa babesteko eta kapitalaren zerbitzura neurri handiagoan jartzeko. Alde batetik, sistema politiko demokratikoaren praktikak eta mugak Konstituzioan arautzea bultzatzen dute. Sistema arauemaile neoliberalak mugak ezartzen ditu demokrazia noraino irits daitekeen zehazteko, eta demokratikoki hautatutako gobernu eta parlamentuei eragotzi egiten die ekonomia kapita-

²⁶ Slobodian, Q. *Globalists: The End of Empire and the Birth of Neoliberalism*. Harvard University Press, 2018.

listari oinarrizko printzipioetan eragin diezaiokeen edozein aldaketa-zantzu. Horrez gain, neoliberalismoak **nazioz gaindiko erakundeak** sortzearen alde egiten du, estatu-politikak lotzeko eta mugatzeko balioko dutenak. Erakunde horiek kontrol-indar bihurtzen dira, eta aurrez kapitalaren interesen alde ezarritako arauak desbideratzea eragozten diete Estatu-nazioei eta administrazio publikoei. Hau da, kapitalismoa demokrazietatik babesteko ordena instituzional global bat dute helburu.

Politika neoliberalen helburua ekonomia liberalizatzea da (Estatua kapitalarentzat errentagarria den edozein jardueratik ateratzea), eta “atzerriko inbertsio zuzenari” (AIZ) segurtasun juridikoa bermatzea. Estatuak ekonomian esku hartzen jarraitzen du beti kapitalarekin lankidetzan aritzeko (adibidez, garraio-azpiegituretako, industria-lurzoruko, komunikazioetako eta abarretako gastu publikoaren bidez). Neoliberalismo ustez ez-interbentzionista, “merkatuei erabakitzen uztekoa”, ez dator bat ekonomia zentraletako industria-politikekin²⁷. Beraz, diskurtso bikoitza dugu, diskurtso neoliberalaren eta benetan existitzen den neoliberalismoaren diskurtsoaren artekoa, kapitalaren alde esku hartzen duten estatu-politikak ezaugarri dituenak.


²⁷ AEBetan, korporazio multinazional handiek, hala nola bioteknologia, nanoteknologia, informazioaren eta teknologiaren teknologia eta abarretako sektoreetakoek orotariko politika ekonomikoen onura jaso dute.

Lurralde-garapen neoliberala

1980ko hamarkadaz geroztik, politika “aktiboak” bul-tzatzea eta “enplegarritasuna” dira Europar Batasuneko **enplegu-politiken** ezaugarri nagusiak. Tokiko ekimeneko enpleguak enplegu-politika komunitarioaren bigarren zuta-bean kokatzen dira, enpresak sortzeari edo “espíritu ekin-tzailea” —enpresa-kultura— sustatzeari dagokionez. Esparru neoliberalerako **toki- eta/edo lurralde-garapeneko estrate-giak** ere ildo beretik doaz. Eta enpresei lagunduz enplegua sortzeko helburuan bat egiten dute estrategiek. Tokiko ga-rapen-politika horien helburu nagusia da kapital globalaren balio-handitzearen baldintzak hobetzea, tokiko kapitala mo-bilizatuz edo “balioa emanez”.

Politika ekonomikoko neurri zehatzak hiru talde handi-tan bil daitezke. Lehenengoan, “ekintzaitzak” mobilizatzer-a eta babestera bideratutako ekintzak daude, enpresa-erakun-deentzako dirulaguntzak edo “ekintzaileak sustatzeko” ekin-tzak, edo enpresaburuaren balorizazio sozialerako kanpainak edo “enpresa-sormena eta -kultura” sustatzeko kanpainak. Bigarren multzoan, tokiko baliabideen aprobeixamendua hobetzeko edo lurraldean eskuragarri dauden baliabide guz-tiak (hasi jaietatik eta azken paraje naturaleraino) merkanti-lizatzeke ekintzak daude. Hirugarrenik, enpresei laguntzeko azpiegiturek hobetzera bideratutako ekintzak daude.

Azken finean, azken lau hamarkadetan, Europako enplegu- eta lurralde-garapenerako politika neoliberalak lotura estua izan dute, eta, horren ondorioz, Ongizate-Estatua “Enpresa-Hazkundearen Estatu” bihurtu da nolabait, eta herritarrak Estatuaren esku-hartzearen helburu nominala izateari utzi eta “ekintzaile” izatera igaro dira. Argitze aldera, tokiko garapenari **“lurralde-neoliberalismoa”** dei dakiok; izan ere, kapitalari balio-handitzeko estrategia berriak legitimatzeko balio izan dute politika horiek.



2. Lurralde-garapen eraldatzailea

Oinarrizko ideiak

Lurralde-garapen eraldatzaile eta emantzipatzaile batek gai izan behar du biztanleriaren eta lurraldearen interes orokorrak bultzatzeko balioko duten aldaketak sortzeko. Horretarako, **nola ekoizten den, zer ekoizten den eta soberakin ekonomikoa nola banatzen denaren inguruko eraldaketak** jaso behar ditu.

Nola sortzen den eta, neurri handi batean, nola banatzen den soberakin ekonomikoa dela eta, beharrezkoa da ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten unitate sozioekonomiko motak birplanteatzea. Hemen defendatutako ikuspegi eraldatzailetik, premiazkoa da bereziki **Ekonomia Sozial Eraldatzaileko erakundeetan** oinarritutako ekoizpen-modu baterantz aurrera egitea.

Bestalde, garrantzitsua da **“zer ekoizten den”** planteatzea. Ereduaren edo ekoizpen-matrizearen eraldaketa desiragarriak **sozialki beharrezkoak eta ingurumenaren aldetik iraunkorrek diren jarduerak** garatzea eskatzen du, eta **burujabetza sektorial estrategikoetan** aurrera egitea.

Gainera, estrategia sozioekonomiko eraldatzaile baten oinarrietako bat **lurraldearen araberako beste sailkapen bat**

egitea da; hau da, lurraldeko zirkuitu ekonomikoak berriro artikulatzea, burujabetza eta autonomia irabaziz, helburua izanik lurraldeko premiak asetzea, eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetan modu jasangarriagoan egitea.

Aurreko guztia oinarri hartuta, **tokiko garapen eraldatzailetzat** hartuko da **lurraldearen burujabetza ekonomikoa** helburu duten estrategia politiko eta elementu teoriko oro; alegia, lurralde jakin batean bizi diren pertsonen beren arazo ekonomikoak konpontzeko duten gaitasuna hobetzea eta handitzea, zehazki beren bizitza mantentzeko eta aberasteko helburuarekin. Beraz, pasatu beharra dago kapital pribatuaren mendeko eta azpiko tokiko/lurraldeko garapenetik tokiko/lurraldeko garapen eraldatzaile, autonomo, autogestionario eta autozentratuta, zeinak balioko baitu errealitatearen eremu guztietan botere errealeko espazioak “behetik” sortzen joateko.

Ondoren, zenbait kontzeptu eta ideia azalduko ditugu, tokiko garapen eraldatzaile gisa ulertzen duguna zabaltzeko. Horretarako, burujabetza kontzeptua erabiltzen dugu, eremu makroago batean, eta lurralde-eremu mikroago batean, udalgintza (munizipalismo) kontzeptua erabiliko dugu, bai eta tokitik edo udaletik soilik egin daitezkeen ekintzak barnebiltzeko.

Burujabetzak eta demokrazia

Tokiko garapen eraldatzailea **burujabetzen** kontzeptuarekin lotzen da, ulertuz burujabetza “bizi-burujabetza” lortzeko azken helburuan bat egiten duten hainbat gaitasun gisa; hau da, bizitzak kapitala menderatzen duen hura²⁸.

Komunitate baten soberakin ekonomikoa nola sortzen eta nola banatzen den erabakitzeko, **tokiko demokrazia** behar da. Horregatik, lurralde-garapen eraldatzaile bat abiarazteko, gelditu egin beharko dira demokrazia kosmopolita edo globalari buruzko proposamenak, hori “demokrazia pribatizatuz”²⁹ tokiko demokrazia desagerrarazteko gida besterik ez baita.

Tokiko demokraziak, era berean, herritarrek erabakiak hartu eta gauzatzeko behar den burujabetza materiala bultzatzeko gai izango den soberakin ekonomikoa endogenotzea eskatzen du. **“Herri-burujabetza”** deritzo herri-mugimenduaren erabaki-ahalmena eta autoantolaketa handitzeari. Helburu nagusia da komunitatearen kontrolerantz eta komunitateak bizitza sozial eta ekonomikoaren hainbat arlori buruz erabakitzeke duen eskubidean aurrera egitea. Zentzu horretan, gobernu demokratikoaren eta herri-burujabetza-aren ideia eta helburu nagusiari heldu behar zaio berriro, eta hori da, J. Goikoetxearen hitzetan, “komunitate politikoak eurek erabakitzen duten bezala erreproduzitzea bermatzea

28 Ikuspegi horrekin lotuta, baina, arlo publikoaz gain, kapital-ekonomia pribatuko sektore jakin bat ere kontuan izanik, Ekonomia Anitz Eraldatzailean oinarritutako Eredu Ekonomiko Berria dago. Ikus Miro, I. (2020) “Una Economía para la Vida”. <https://www.elcritic.cat/opinio/ivan-miro/una-economia-per-a-la-vida-55729>

29 Goikoetxea, J. *Privatizar la democracia. Capitalismo global, política europea y Estado español*. Icaria, 2018.

(demokraziaren subjektuari edo objektuari herri, nazio, demo, gizarte, komuna edo komunitate deitzeak ez du gertaera hori aldatzen)". Horrela, egokia iruditzen zaigu "herri-burujabetza-ren kontzeptua birpentsatu eta esatea herriak bere erabakien arabera gobernatzeko duen gaitasun instituzional eta lurralde-tua dela. Beraz, ezin da demokratizaziorik egon botere politikoa **lurralderatu** eta/edo instituzionalizatu gabe"³⁰.

Ekonomia Sozial Eraldatzaileak lanaren burujabetza edo pertsonen lan- eta ekoizpen-jardueraren autonomia du oinarri, "**burujabetza ekonomikoa**" lortzeko edo giza garapenerako funtsezkoak diren behar material eta espiritualak betetzeko, kapitalaren balorazio-zirkuitutik kanpo. Burujabetza ekonomikoa orokor horretara iristeko, beharrezkoa da lurralde-jakin batean modu kolektiboan lortutako burujabetza edo "**lurralde-burujabetza ekonomikoa**" izatea. Burujabetza ekonomikoa, tokikotik, bertatik, lurraldetasunetik eraikitzea funtsezkoa da, hori gabe ezin izango baita lortu neoliberalismoak proposatzen duenaz bestelako lurralde-eredu ekonomikorik. Burujabetzarik gabe, ezinezkoa izango da kapitalak goitik ezarritako esparruari eta politikei aurre egitea.

Gainera, beharrezkoa da burujabetzak lortzea sektore ekonomiko estrategikoetan. Hartara, "**burujabetza sektorial estrategikotzat**" hartuko da sektore ekonomiko estrategikotan herritarrek erabakitzeke duten gaitasuna, hala nola:

- **Elikadura-burujabetza.** Lehen sektorea elikadura-burujabetzarekin lotzen da. Ekoizpen-matrizea eraldatzeko elementu nagusietako bat landa-mundua eta sektorea biziberritzea da. Helburu nagusia litzateke elikadura-burujabetzan

ahalik eta maila handienak lortzea, horretarako esparrua autonomia material baten eraikuntza izanik, aukera emango lukeena bizi erreproduzitzeko eskakizunak tokiko materialekin eta modu autonomoan asetzea.


- **Energia-burujabetza.** Eraldaketa-ildo orokorra oinarritu behar da desfosilizazioan eta desnuklearizazioan, kontsumoaren murrizketan eta benetan berriztagarriak diren energien ezarpenean. Ezinbestekoa da herritarren partaidetza eta kontrola orokortzea energiaren sorreran eta banaketan, beren burua kolektiboki hornitzeko eta helburu eta behar komunitarioak asetzeko.
- **Burujabetza industrial-teknologikoa.** Industria-jarduerak lotura estua izan behar du sektore teknologikoarekin eta teknologia-burujabetzarekin. Ekoizpen-ereduaren eraldaketak tresna eta erreminten erresistentzia eta iraunkortasuna bermatuko dituen diseinu teknologikoa bultzatu behar du, eta, gainera, lurraldean ugari eta birziklagarriak diren material eta energia iraunkorrak baliatuko ditu.

Amaierako helburu nagusienetariko bat, oraindik garatu gabe dagoena, bizi-burujabetza da eta horretarako, nola, zer eta non galderak ESE ikuspegitik erantzuteaz batera, gizar-teko beste arlo batzuekin duten edo izan behar duen harremana aztertu behar da. Hau da, bizitzarako erabateko eraldaketara bidean, etxeko (bizitokiko), komunitateko eta eremu publikoko eremuetan harremanak garatu eta elkarlana sustatu behar da³¹, historikoki eta patriarkalki produktibotzat

31 Amaia Perez Orozco. El Salto aldizkariko elkarrizketa. 2024. <https://www.elsaltodiario.com/ecofeminismo/entrevista-amaia-perez-orozco-sindicalismo-es-clave-atacar-dentro-al-capitalismo>

30 Goikoetxea, J. (2018). *Idem*

jo izan diren eremuetan ez ezik, gizartearen eremu guztietan burujabetza lortzeko. Horrenbestez, elkarlan honetan abiatzen bagara, denontzat bititza-burujabetza kuota handiagoa lortzeko aukera izango dugu.



4. irudia. **Burujabetza(k)**
Iturria: Olatukoop


Udalgintza eraldatzailea

Lurralde-erlaketak udalen eta/edo kontzejuen lankidetzara eskatzen du. Udalgintzaren esparrua da helburu hori lortzeko eremurik eraginkorrenetako bat. Horrenbestez, ESEaren balio eta praktikek tokiko garapen ekonomikoari dagozkion estrategietan eta bizitzarako lehenetsia duten jardueren sozioekonomikoen garapenean zentratu behar dute.

Horretarako, ezinbestekoa da udalgintza eraldatzailearen logikatik abiatutako hitzarmen bat egitea, arlo publikoa, ko-

munitarioa eta kooperatiboa elkarlanean eta bateratuz. Lankidetzara horrek burujabetzaren funtsezko hiru elementu biltzen ditu: jabetza, proiektua eta erabakietan parte hartzea. Lankidetzara-eremu bakoitzaren bidez, helburu jakin batzuk bermatu nahi dira:

- Publikoa den hark unibertsaltasuna bermatu behar du. Horrela, ereduak gizarte osorako balio du; pertsona guztiek irisgarritasun bera dute.
- Kooperatiboa den hark kudeaketa-eredu demokratikoa, inklusiboa eta bidezkoa bermatu behar du.
- Komunitarioa den hark bermatu behar du gizarte edo komunitateari ahotsa eta parte-hartzea ematen zaiola.



5. irudia. **Elkarlan publiko-komunitario-kooperatiboa.**
Iturria: Olatukoop

Udalgintza eraldatzailearen logikatik abiatuta, elkarlan-prozesuetan sakontzeko, hiru ekintza mota nagusi egin daitezke³²:

1. Ongarritu: ESKo eta ESEko ekimen berriak sortu eta daudenak hedatu daitezen baldintza egokiak sortzen lagun de zaketen ekimenak dira, maila instituzionalean zein kognitiboan eragiten dutenak. Horien artean daude, besteak beste, sentsibilizazioa eta formazioa ekintzailatza sozialean, ekonomia sozialaren sustapenerako udal-egiturak, mahai sektorial eta merkatu sozialen sustapena, ESEko udal-sarean parte-hartzea.

2. Erabili: dagoeneko lurraldean diren ES eta ESEko proiektuak eta enpresak indartzera bideraturiko neurriak dira, bai erakunde horien eskaintza sendotuz, bai tokiko mailako eskari pribatu zein publikoa erakunde horietara bideratuz; hala nola, finantza etikoko baliabideak eta funts kooperatiboak, kontratazio publiko arduratsua, energia berriztagarrien komunitateen sustapena eta bertan parte-hartzea, ekosistema kooperatiboak sustatzeko politika publikoak.

3. Eraldatu: bizitzaren iraunkortasuna sendotzeko beharrezkoak diren ekimen publiko-kooperatibo-komunitarioak egituratzeko dinamikak dira, lurralde burujabeen iparratari jarraiki; esaterako, ESE sustatzeko udal proiektu eta egiturak, zaintza-kooperatiba eta telekomunikazio-zerbitzu integralen sustapena, lurzoruen erosketak publiko-komunitarioa eta erabilera lagapeneko hitzarmenak.

³² Etxezarreta, E. *Ekonomia Sozial Eraldatzailea eta tokiko garapen eraldatzailea sustatzeko gida: Lurralde burujabe eta bizigarriak eta udalgintza eraldatzailea*. KoopFabrika (koopfabrika.eus/argitalpenak), 2020.

3. Ekosistema sozioekonomiko eraldatzaileak Euskal Herrian

Subjektu eraldatzaileak eta lurralde-eragileak

Ekosistema kooperatiboak sortzeko, **subjektu eraldatzaile** bat sortu behar da. Subjektu hori kooperatiba-proiektuetan parte hartzen duten pertsonen eta lurraldearen garapen iraunkorrean eta eraldatzailean inplikaturako pertsonen osatuko dute. Gainera, subjektu horrek lankidetzaren harremanak ezarriko du beste eragile batzuekin, hala nola udalekin, gobernuarekin edo ESEaren ildo horretan lanean ari diren beste lurralde batzuetako eragileekin.

Ekosistema bat edo tresna kooperatibo bat autokudeatzeko gai den subjektu bat ez da gauetik goizera sortzen. Horregatik, ezinbestekoa da etengabeko ibilbide bat ezartzea kolektibo hori trebatzeko, laguntzeko eta ahalduzko.

Benetako eragina izan nahi bada, estrategiek behetik go-rako prozesu kolektiboetan oinarritu behar dute, **lurraldeko eragileen** artean eraikitakoetan; horretarako, egitura komunitarioek, enpresa-egiturak eta erakunde publikoek osatzen dituzten ekimenak batuta.


Gure ustez, beharrezkoa da nagusiki ekonomia sozial eraldatzaileak gidatutako **estrategia lurraldetuak** garatzea, sub-

jektuak, espazioak, bulegoak edo sareak eraikiz, edo sortzen den horretan erabakigarriak izanez. Horretarako, malgutasunez lan egin behar da, esku hartzeko modu desberdinekin eta lurralde bakoitzaren beharrak eta aukerak kontuan hartuta.

Esku-hartze ereduak

Mapan, orain arte (2024ko udaberria) erabilitako esku-hartze ereduak erakusten dira, Olatukoopek edo Olatukoopeko kideek sustatuak.

- 1** ESE sustapen-bulegoak
- 2** ESE subjektu-eraldatzaileak
- 3** ESE lurralde-interkooperazio sareak
- 4** ESE sektore-interkooperazio sareak
- 5** Herri kooperatibak



6. irudia.
Ekosistema sozioekonomiko eraldatzaileak sortzeko esku-hartze moduak
 Iturria: Olatukoop

1 ESE sustapen-bulegoak

Erreferentziazko espazioak dira, non ESEko proiektu berriek espazioaren laguntza eta/edo erabilera (normalean mugatua) izan dezaketen. Gailu horiei euskarria eskain-tzeaz gain, ESE sustatzeko tresna garrantzitsuak ere ba- dira, eskaintzen dituzten laguntza motengatik. Sektore publikoarekin batera gara daitezkeen arren, ESEko era- gileena izango da protagonismoa.

2 ESE subjektu eraldatzaileak

Tokian-toki, autonomiaz, ESEaren hedapena dinamizatzten duten eta proiektu berriei laguntza eskaintzen dieten pertsonen eta/edo proiektuen sareak dira. Subjektu horiek ematen diote zentzua tokiko garapen eraldatzaileari.

3 ESE lurralde-interkooperazio sareak

Lurralde edo eremu batean, ESEren baitako hainbat proiektu biltzen dituzten sareak dira. Horien helburua ESEren garapena sendotzea eta haien arteko lankidetzaren sustatzea da. Askotan, erreferentziazko espazio bat ere izaten dute.

4 ESE sektore-interkooperazio sareak

Aurreko eskuhartze-moduaren izaera eta helburu bera dute, baina sektoriala edo gai bati lotutako elkar-ketak eta lankidetzak dira.

5 Herri-kooperatibak³³

Tokiko garapena eta burujabetza garatzeko berariazko tresna da. Herri-kooperatiba ez da forma juridiko bat, eta forma desberdinak har ditzake; ez da plataforma bat, baina plataformaren ideia ere jasotzen du; ez da zerbitzu publikoak ordezkatzeko tresna bat, baina Administrazio Publikoak eman beharreko zerbitzuak emateko erabil daiteke. Herri-kooperatiba egitura sozioekonomiko publikoa da, lurralde batek (herriak, auzoak, eskualdeak, etab.) behar dituen edo nahi dituen proiektuak sustatzeko eta zerbitzuak emateko. Herritar antolatuen, ekonomia sozialeko edo ekonomia eraldatzaileetako eragileen, eragile publikoen eta erakunde publikoen lidergoarekin, hainbat modutan biltzen dira eredu kooperatibo batean zehazten den helburu komun bat lortzeko.

33. Julio, G. eta Udabe, L. *Herri Kooperatibak, hurbilpen bat*. Etzi.pm. 2021. <https://etzi.pm/2021/01/herri-kooperatibak/> eta Irasuégi, B. *Herri Kooperatiben denbora*. Argia. 2021. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2722/herri-kooperatiben-denbora> Etxezarreta, E. eta Bengoetxea, A. *Herri Kooperatibak: helduleku teorikoak eta bide-ragarritasun juridikoa Euskal Herrian*. KoopFabrika, 2022. <https://koopfabrika.eus/argitalpenak>



Mailu eta mapa berrituak ditugu eskuetan

Olatukoopekin egindako lehen hamar urteak nolabait definituko bagenitu, ikasketa urteak izan direla esan genezake, kooperatibismoaz eta interkooperazioaz dakigun guztia bide eder honetan ikasi baitugu, intuizio kolektiboa, lehenik praktika eta ondoren teoria bihurtuz. Kolektiboan, bide hau bakarrik edo isolatuta egitea ezinezkoa delako, eta besteekiko, sustengatzen gaituen sarearekiko, interdependentzia desiratua ezinbestekoa delako. Horregatik doaz liburu honen azken hitzak pluralean, kolektiborik gabe eraldaketa ezinezkoa delako.

Esango dute ekonomia eraldatzailea(k) ez direla ekonomia, baina guk diogu hemen proposatzen dugun teoria mailu bat dela, sisteman pitzadurak egin eta zabaltzeko, betiere mailua egunerokoan erabiltzeko gai bagara. Baina honaino iritsi bazarete, kontzeptu teorikoz bustita iritsi zarete, eta beraz, proposamen teoriko zahar berriez jantzita. Hala ere, nahiago genuke irakurri eta ikasitakoa proposamen teoriko

bezala gorde baino, lanerako tresna bezala erabiliko bazenute. Hori izan da gure berezitasunetako bat bide honetan, praktikatik pentsamendura bidea egitea, eta elkarrekin pentsatutakotik praktika berriak gauzatzea, pentsatuz ekitea. Horregatik esaten dugu proiektu txiki eta handietan, egiten duenari errespetua zor diogula, egitea bera baita gure proposamen praktikoa, teoriako eta politikoei legitimitatea ematen diena.

Bizitza bizigarriak posible egiteko egunerokotik lan egin beharko dugu, zer eta nola galderei erantzunez. Nolakotasuna antolaketa kolektiboak emango digu, proiektuz proiektu lurraldean zabaltzen doan sarea errizoma bihurtuz, maitasun kooperatiboa deitu izan dugun interkooperazioa egituratuz. Izan ere kooperatibak eraldatzaile izan nahi badu ezin du barrura begira gelditu, norberaren ongizatearekin ase. Formazioa da gure lurra, eta horregatik ezinbestekoa da oinarri propioak barneratu eta erreproduzitzea, eta konpromiso sendoek bultzatuta elkartasuna dimentsio desberdinetan zabaltzea; harreman afektiboen saretik hasi, lurralde eta ekosistema kooperatiboetan jarraitu, eta jendarte osoaren ongizate baldintzetan eragiteraino. Ez dago kooperatibarik kooperatibista eta interkooperaziorik gabe.

Zer egin galderari erantzunez berriz, bizitzarako burujabetzak dira gure ardatz estrategikoa, ekonomia herritarrontzat berreskuratu, eta behar eta desioen ikuspegi emantzipatzaile batetik gure auzo, herri eta bizi-arroetan lan eta bizitzeko aukerak sortu nahi ditugu. Proiektuak sortu, hauek elkarlanean jarri

eta lurralde burujabeak garatuko ditugu, lurralde harremanak ere elkartasunetik begiratu eta inor atzean utzi gabe. Errizomek zuhaitzak, eta zuhaitzek baso bizigarriak sortzea da gure utopia xumea.

Baina badakigu Utopia irlara bidea praktikatik egiten, eta badugu horretarako mapa berri bat, bidean aurkituko ditugun erronek erakusten dizkiguna. Batetik, antolaketa errizomatikoaren erroka, lurralde, proiektu, izaera eta asmo anitzak berdinen arteko sareen bitartez eraiki beharko duguna. Bigarrenik, gure auzo eta herrietako erreleboaren erroka, bizi-proiektuak itotzen dituen kapitalismoari proiektu kolektibo berriekin erantzuteko. Digitalizazioaren erroka ere hemen dugu, datuen ustiatetaren bitartez azeleratutako kapital metaketari, denbora askatzeko sortutako teknologia libreekin frenatzeko. Eta, azkenik, kooperatibak denontzat izatearen erroka, lan burujabeak zapaldu eta baztertuen emantzipaziorako tresna izan behar baitu.

Bizitzarako ekonomia eraldatzailea(k) egunero egiteko antolatu gaitzen, dena denontzat izan dadin. Badugu mailu berri bat pitzadurak sortzeko, baina aurrean dugun paretak ez digu etorkizun hobeak pentsatu eta sortzeko perspektiba ematen, badirudi dena dela murrutik. Egin eta pentsatuz, eskua eta burua erabiliz, ekonomia, lan eta bizitza bizigarriak eraikitzeko kategoria berriak ekoiziz, itotzen gaituen sistemaren pitzaduretan, ernamuina bidea egiten ikusiko dugu, oparotasuna denontzat izango den lur emankorrera bidea.

Bibliografía

Alvear, A. Begiristain, M., Etxezarreta, E, y Morandeira, J. *ESE iparrorratza. Ekintzailtza sozial kooperatiborako adierazle sistema baten proposamena*. KoopFabrika 2019. <https://koopfabrika.eus/argitalpenak>

Aristóteles. *Política, Colección Clásicos de Grecia y Roma*, Madrid, Alianza Editorial (texto original del siglo IV a.c.). Libro I, capítulo VIII; 59-62, 2007.

Cabrera, A., Lluch, E., y Pedrajas, M. *Economía, libro de 1º de Bachillerato*. Ed. SM, 2002.

Carrasco, C. *La economía feminista Un recorrido a través del concepto de reproducción*. *Ekonomiaz* Nº 91, 2017.

Etxezarreta, M. *¿Para qué sirve realmente la economía?* Barcelona, Paidós, 2015.

Etxezarreta, E. *Ekonomia Sozial Eraldatzailea eta tokiko garapen eraldatzailea sustatzeko gida: Lurralde burujabe eta bizigarriak eta udalgintza eraldatzailea*. KoopFabrika, 2020. <https://koopfabrika.eus/argitalpenak>

Etxezarreta, E. eta Bengoetxea, A. *Herri Kooperatibak: helduleku teorikoak eta bideragarritasun juridikoa Euskal Herrian*. KoopFabrika, 2022. <https://koopfabrika.eus/argitalpenak>

Federici, S. *Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*. Eskafandra, 2017.

Goikoetxea, J. *Privatizar la democracia. Capitalismo global, política europea y Estado español*. Icaria, 2018.

Goikoetxea, J. Y Noguera, A. *Estallidos. Revuelta, clase, identidad y cambio político*. Ed. Bellaterra, 2021.

Goikoetxea, J. *Idealism and biologism in Social Reproduction Theory: a materialist critique*. *Capital and Class* 1-20, 2024.

Irasuegi, B. *Herri Kooperatiben denbora*. Argia, 2021. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2722/herri-kooperatiben-denbora>

Jessop, Bob. *El Estado. Pasado, presente, futuro*. Prometeo, 2019.

Julio, G. eta Udabe, L. *Herri Kooperatibak, hurbilpen bat*. Etzi.pm, 2021. <https://etzi.pm/2021/01/herri-kooperatibak/>

Lezamiz, M. *Derecho pirenaico y cooperativismo*, 2019. [sarean]

Mies, M. eta Siva, V. *Ecofeminismo*. Ed. Icaria, 2016.

Miró, I. *Una Economía para la Vida*, 2020. [sarean]

Monzón, J.L. *Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector*. CIRIEC-España, *Revista de economía Pública, Social y Cooperativa*, 2006, 56. zenb. 9-24 or.

Pérez Orozco, A. El Salto. 2024. <https://www.elsaltodiario.com/ecofeminismo/entrevista-amaia-perez-orozco-sindicalismo-es-clave-atacar-dentro-al-capitalismo>


Polanyi, K. *El sustento del hombre.* Barcelona, Mondadori 1977, *The Livelihood on Man*, new York Academic Press.

Polanyi, K. *La gran transformación. Crítica al liberalismo económico.* Madrid, La Piqueta, 1989.

Sassen, Saskia. *Territorio, autoridad y derechos. De los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales.* Katz, 2010.

Slobodian, Q. *Globalists. The End of Empire and the Birth of Neoliberalism.* Harvard University Press, 2018.

Soler Montiel, M., Delgado Cabeza, M. *Rearticular la economía desde los territorios: hacia una economía de los vínculos para el cuidado de la vida.* Jorge Riechmann, Alberto Matarán Ruiz eta Oscar Carpintero Redondo (koor.), *Para evitar la barbarie. Trayectorias de transición ecosocial y de colapso*”. Granadako Unibertsitatea, 2018.



olatukoop.eu

